

# 22

## Soziologiazko Euskal Koadernoak Cuadernos Sociológicos Vascos

# 2007

### ALFABETIZAZIO BERRIAK: EUSKAL HERRIKO NESKA-MUTILAK ETA KOMUNIKABIDEAK

*Basterretxea, Jose Inazio*

*Idoyaga, Petxo*

*Ramirez de la Piscina, Txema*

*Zarandona, Esther*



# **Alfabetizazio berriak: Euskal Herriko neska-mutilak eta komunikabideak**

***Basterretxea, Jose Inazio***

***Idoyaga, Petxo***

***Ramírez de la Piscina, Txema***

***Zarandona, Esther***

# **2007**



LEHENDAKARITZA  
Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza  
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA  
Dirección de Estudios y Régimen Jurídico  
Gabinete de Prospección Sociológica

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

## BILDUMA HONETAKO BESTE ZENBAKI BATZUK

1. La actitud emprendedora en la CAPV • *Kualitate Lantaldea*
2. Institucionalización política y reencantamiento de la socialidad. Las transformaciones en el mundo nacionalista • *Begoña Abad, Javier Cerrato, Gabriel Gatti, Iñaki Martínez de Albeniz, Alfonso Pérez-Agote, Benjamín Tejerina*
3. La cultura del trabajo y la actitud emprendedora en el ámbito profesional de la CAPV  
*Miguel Ayerbe, Esther Buenetxea*
4. La población vasca ante el periodo de tregua de ETA 1998-1999  
*Gabinete de Prospección Sociológica*
5. Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua • *Txoli Mateos*
6. Análisis postelectoral de Elecciones Autonómicas 2001  
*Gabinete de Prospección Sociológica*  
*Belén Castro Iñigo, Miguel Ángel García Montoya, Amaya Zárraga Castro*
7. Acción colectiva y sociedad de movimientos. El movimiento antimilitarista contemporáneo en el País Vasco-Navarro • *Jesús Casquette*
8. El sector de la Cooperación al Desarrollo en la CAPV en el bienio 1999-2000  
*Varios autores*
9. Euskal eskolaren muin eta mamiaren bila: ikerkuntza-prestakuntza prozesu bat  
*Maite Arandia, Idoia Fernández, Pilar Ruiz de Gauna, José Luis Maraño, Juanjo Gómez*
10. La familia en la C. A. P. V. - 1997 • *Kualitate Lantaldea*
11. La familia en la C. A. P. V. - 2002 • *Gabinete de Prospección Sociológica*
12. El Concierto Económico Vasco: historia y renovación. Las valoraciones de la población de la C. A. P. V. al respecto • *Varios autores*
13. Gazttxoak eta Aisialdia: Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)  
*Kontxesu Berrio-Otxoa, Jone Miren Hernández, Zesar Martínez*
14. Nuevos procesos de jubilación en las sociedades industriales contemporáneas:  
*El caso vasco* • *Paulina Osorio Parraguez*
15. Integración socio-cultural y adaptación psicológica de los inmigrantes extranjeros en el País Vasco • *Nekane Basabe, Anna Zlobina, Dario Páez*
16. Jolasgaraia: gazttxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak • *Jone Miren Hernandez*
17. ¿Sirven los grupos de trabajo autónomos para cambiar las organizaciones? • *Aitor Aritzeta*
18. Gobernanza y territorio en Iparralde • *Igor Ahedo, Eguzki Urteaga*
19. Inmigración y empresa • *Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi (CEAR-Euskadi)*
20. Etorkinak eta hizkuntza-ereduak • *Mario Zapata Solano*
21. La reducción del tiempo de trabajo, 1995-2005 • *José Ignacio Imaz Bengoetxea*

Prospekzio Soziologikoaren Kabinetek ikerlan hau argitara emateko erabakiak ez dakin berekin inolako erantzukizunik bertan agertzen diren edukiekiko.

La decisión del Gabinete de Prospección Sociológica de publicar el presente estudio no implica responsabilidad alguna sobre su contenido.

---

|                  |  |
|------------------|--|
| Argitaraldia:    | 1.a, 2007ko uztailean  |
| Ale-kopurua:     | 500 ale  |
| ©                | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Lehendakaritza   |
| Argiratzailea:   | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonpozaketa: | R.G.M., S.A.   |
| eta imprimaketa: | Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao   |
| I.S.S.N.:        | 1575-7005  |
| L.G.:            | BI-2080-99   |

# AURKIBIDE OROKORRA

|  |           |
|--|-----------|
| SARRERA GISA: GILTZAREN BILA .....   | 9         |
| <b>1. NERABEAK ETA KOMUNIKABIDEAK: AMODIOA ETA GORROTOA. ....</b>                    | <b>13</b> |
| 1.1. Sarrera .....   | 13        |
| 1.2. Orain arte egindakoa.....   | 14        |
| 1.3. Hipotesiak eta iker galderak .....  | 17        |
| 1.4. Metodologia .....   | 18        |
| 1.4.1. Sakoneko elkarrizketak .....  | 18        |
| 1.4.2. Eztabaida-taldeak .....   | 19        |
| 1.4.3. Iritzi-azterketa .....  | 20        |
| 1.5. Emaitzak .....  | 20        |
| 1.5.1. Sakoneko elkarrizketak .....  | 20        |
| 1.5.2. Eztabaida-taldeak .....   | 22        |
| 1.5.3. Iritzi-azterketa .....  | 23        |
| 1.6. Ondorioak .....   | 29        |
| 1.7. Eranskina: zenbait datu interesgarri .....                                      | 30        |
| <b>2. TELEBISTA: GOZOAK OKI .....</b>  | <b>35</b> |
| 2.1. Telebista, azukre-ontzian.....  | 35        |
| 2.2. Ikerketaren bi emaitza giltzarri .....  | 36        |
| 2.3. Telebistaren gozoa: lilura eta ametsa .....                                     | 36        |
| 2.3.1. Irudia, ahozkotasunaren gainetik.....   | 37        |
| 2.4. Telebistaren katea: deskodifikazio traketsa .....                               | 37        |
| 2.4.1. Hegozaldeko gazteak, Spainiari eta erdarari begira .....                      | 38        |
| 2.4.2. Iparraldeak Frantzia ipar .....   | 41        |
| 2.5. Telebista: kontsumo kritikoaren bila .....                                      | 42        |
| 2.5.1. Gazteekin, albisteak ikusten .....  | 44        |
| 2.6. Telebista: gozoak oki .....   | 45        |
| 2.6.1. Komunikazioa ikasi eta horretan trebatu.....                                  | 46        |
| <b>3. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA, ZUBIAK ERAKITZEN .....</b>                          | <b>49</b> |
| 3.1. Sarrera .....   | 49        |
| 3.2. Teknologia, alfabetizazioa eta gu geu .....                                     | 50        |
| 3.3. Alfabetizazio berrien norabidea: ikerketaren ondorio batzuk .....               | 52        |
| 3.3.1. Alfabetizazioa helburu irakasgai guztieta.....                                | 52        |
| 3.3.2. Garrantzitsuena: harremanak eta komunikazioa .....                            | 53        |
| 3.3.3. Ekipamenduaren hobekuntza kuantitatiboa lagun .....                           | 53        |
| 3.3.4. Lehenengo ikasgaia: irudia ez da errealitytea.....                            | 53        |
| 3.3.5. Asko lagunduko digun galdera: zergatik irakurtzen dute<br>horren gutxi? ..... | 54        |
| 3.3.6. Ekin! Komunikazioa aktiboa da .....   | 54        |

|   |            |
|---|------------|
| 3.3.7. Informazioa, komunikazioa eta teknologia mintzagai . . . . .   | 55         |
| 3.4 Ekintza, elkarrekintza eta narrazioa: Eszenatoki sortzaileak  |            |
| alfabetizazioen testuinguru . . . . .   | 55         |
| 3.5 Beste proposamen bat: eszenatoki sortzaileak irakasleentzat ere . . . . .   | 58         |
| 3.6. Material lagungarria . . . . .   | 59         |
| <b>4. CURRICULUMA: HEDABIDEAK IKASI . . . . .</b>   | <b>63</b>  |
| 4.1. Curriculumera hurbiltzen . . . . .   | 64         |
| 4.2. Urratsak diseinatzen . . . . .   | 65         |
| 4.2.1. Lengoaia. . . . .  | 65         |
| 4.2.2. Teknologia. . . . .  | 66         |
| 4.2.3. Ekoizpen-prozesuak. . . . .  | 66         |
| 4.2.4. Ideologia eta balioak. . . . .   | 66         |
| 4.2.5. Interaktibotasuna. . . . .   | 66         |
| 4.2.6. Estetika. . . . .  | 67         |
| 4.3. Telebistaren lanketa, adibide gisa . . . . .   | 67         |
| 4.3.1. Albistegiak. . . . .   | 67         |
| 4.3.2. Publizitatea. . . . .  | 71         |
| 4.4. Azken hitz bat . . . . .   | 73         |
| <b>5. VOCES EXPERTAS: EDUCACIÓN Y FORMACIÓN, ELEMENTOS CLAVE . . . . .</b>  | <b>75</b>  |
| 5.1. La alfabetización audiovisual. . . . .   | 76         |
| 5.2. La influencia de los medios en los adolescentes. . . . .   | 79         |
| 5.3. Educomunicación: educación en comunicación. . . . .  | 86         |
| 5.3.1. Relación entre aprendizaje de las tecnologías y educación crítica. . . . .   | 87         |
| 5.3.2. Escuela, familia y medios en la responsabilidad de educomunicar . . . . .  | 89         |
| 5.3.3. La situación actual de la educomunicación dentro del currículo escolar y el lugar que debería ocupar. . . . .                                  | 91         |
| 5.3.4. Educación y formación del profesorado. . . . .   | 95         |
| 5.4. Una experiencia en alfabetización audiovisual: el programa “Familia, Televisión Internet” de BIGE (Bizkaiko Ikerketa Gurasoen Elkartea). . . . . | 98         |
| 5.5. Prentsa tailerra / Taller de prensa, reflexiones sobre una experiencia en educomunicación. . . . .   | 101        |
| <b>6. BIBLIOGRAFIA . . . . .</b>  | <b>103</b> |

# TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

## Taula

|  |    |
|--|----|
| 1. taula: Komunikabideen kontsumoa 14-18 urte bitarteko gazteen artean .....   | 24 |
| 2. taula; Nerabeen ikus-entzunezko ekipamendua (14-18 urte). ....  | 24 |
| 3. taula. Aisialdiaren kudeaketa gazteen artean (*) .....  | 25 |
| 4. taula; <i>Politika, sexu, droga edota inmigrazio kontuetan nork du eragin bandiagoa gazteen artean?</i> .....           | 25 |
| 5. taula: Komunikabideetako edukiak hizpide gisara. ....   | 26 |
| 6. taula: Gazteek komunikabideen aurrean dituzten jarrerak. ....   | 27 |
| 7. taula: Albistegien sinesgarritasuna (*) .....   | 27 |
| 8. taula: Sailik gustukoena gazteen artean .....   | 28 |
| 9. taula: Irratsaiorik gustukoena gazteen artean. ....   | 28 |
| 10.taula: Telebistako saiorik gustukoena gazteen artean. ....  | 28 |
| 11.taula: Interneten erabilera gazteen artean .....  | 29 |
| 12.taula: Prentsaren kontsumoa Hego Euskal Herrian.<br>Astean behin baino gehiagotan irakurtzen dutenen kopurua: %72 ..... | 32 |
| 13.taula: Prentsaren kontsumoa Ipar Euskal Herrian<br>Astean behin baino gehiagotan irakurtzen dutenen kopurua: %65 .....  | 32 |
| 14.taula: Irratirik gustukoena .....   | 33 |
| 15.taula: TBko saiorik gustukoena .....  | 33 |
| 16.taula: Katea eta kontsumoa hegoaldean .....   | 39 |
| 17.taula: Albistegiak, profil linguistikoaren arabera .....  | 40 |
| 18.taula: Euskal telebistak informatzen du... ....   | 40 |
| 19.taula: Katea eta kontsumoa iparraldean .....  | 41 |

## Grafikoa

|  |    |
|--|----|
| 1. grafikoa: Euskararen ezagutza-maila .....         | 31 |
| 2. grafikoa: Bizitza pribatuari buruzko saioak ..... | 33 |
| 3. Borondatezko irakurketak .....                    | 34 |



## SARRERA GISA: GILTZAREN BILA

Etxea zaharberritu digute. Azala eta mamia. Dena aldatu digute. Kanpoaldea mar-gotzeaz gain, etxe barruko banaketa bera ere aldatu da. Horma batzuk bota eta bes-te batzuk eraiki dituzte. Ateak, kristalak, leihoa, pertsianak. Ia ezer ez da berdin; ezta sukaldea ere. Nola maneiatuko gara berton? Eta hori baino garrantzitsuagoa, non daude giltza berriak? Nork esplikatuko digu etxe-tresna berrieik nola funtzi-natzen duten edota zertarako balio duten?

Aldaketa-garaia da gurea. Maila guztietan sumatzen den joera da: lan-munduan, aka-demia-giroetan, gizarte-harremanetan... Aldaketok zitzu bizian dato. Gaur eta atzo denborako mugarrak baino gehiago dira. Gaur ia ezer ez da atzo bezala. Luzaroan ezer gutxik irauten du. Teknologia berrieik den-dena jarri dute hankaz gora. Komu-nikazioaren mundua ere zorabio horren baitan dago. Internet, sakelako telefonoak, digitalizazioa, teknologia multimedia, satelite bidezko telebista, kanal tematikoak, CDRomak, DVDAk, errealitate birtuala... eta beste hainbat eta hainbat berrikuntzek dezenteko eragina dute gure eguneroko bizimoduan. Aldaketok eremu berria osatu dute, unibertsio bat non sarritan noraezean gabiltzan. Estreinatu berri dugun etxe horretan arrotz sentitzen gara; giltzarik gabe, galdua. Hiritarrok giltzak behar di-tugu, nonahi dagoen mundu berri hori interpretatzen lagunduko diguten erremintak, lanabesak, lan-tresnak...

Izan ere, galdera asko ditugu. Urriak dira erantzunak. Informazioaren gizartean bizi garela entzun dugu han eta hemen, baina norbaitek lagundi al digu garai berri horietara egokitzenten? Laguntzarik izan behar al dugu? Izan al dugu inoiz, adibidez, iku-sentzunezko alfabetizazioa? Testuen irakurketa / idazketa-prozesuak metodologia zehatza daukan bezala, ba al dago irudien irakurketa egiteko metodorik? Nola interpretatzen da, adibidez, TBko iragarki bat? Herritarrok erabiltzen al dugu galbahe be-rezirik albistegietako berrien aurrean? Non daude giltza horiek? Guk eskuratu behar ditugu? Nondik? Nola? Zertarako?

Nerabeak izan ditugu xede nagusia lan honetan, 14-18 urte bitarteko gazteak, hain zuen. Zergatik nerabeak? Baten faltan honatx hiru arrazoi: beraiek komunikabide berri horien erabiltzaile apartak direlako, laster barru lan-merkatu teknologizatu horren parte izango direlako eta etorkizun hurbila beraien esku dagoelako. Euskal Herriko nerabeen inguruan saiakera dezente egin dira. Ez dira horrenbeste izan, ordea, nerabeak eta komunikabideak uztartu dituzten ikerketak.

Gai horren inguruan ibili da EHuko ikerketa-talde bat 2003-2006 urtealdian, buru belarri ibili ere. Hemen biltzen dira ikerlan horren emaitzak. EHuko lau irakasle ari-tu dira auzolanean, ikergaia bertatik bertara aztertzen: Txema Ramírez de la Piscina, Jose Inazio Basterretxea, Petxo Idoiaga eta Esther Zarandona. Lehenengo hirurak Gi-zarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasleak. Laugarrena Bilboko Irakas-le Eskolako irakaslea.

Ikerketak 30.250 euroko aurrekontua izan du. Proiektua babestu duten erakundeak EHU (18.250 €) eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Lehendakaritza sailak (6.000 eurona) izan dira. Beraien laguntzarik gabe ezinezkoa zatekeen azterlan hau.

Ikerketa honen abiapuntuan kezka bat zegoen: gure artean, eskola-curriculumetik ezer gutxi egin da komunikazioaren heziketa ikastetxeetan txertatzeko; ez modu arautuan behinik behin. Gabezia hori are eta larriagoa da orain, ikus-entzunezkoaren paradigma nagusitu zaigun garai honetan. Ikerketa honen bitartez ere, jakin dugu gure egoera ez dela bakarra munduan. Kontsolamendu merkea gurea! Adi: zenbait herritan aurrea hartu digute, aspaldi gainera. Kanada, Erresuma Batua eta Australian, adibidez. Berton hogeita bost bat urte daramatzate kontu hauekin gora eta behera. Bertoko ikastetxe askotan lan eskerga egin dute “hezikomunikazioa” edo Heziketa komunikazioa deritzon irakasgaiaren inguruan. Izan ere, diciplina hori guztiz beharrezko da gure uste apalean euskal curriculumean ere txertatzea, bizi garen testuinguru aldakor honetan gizaki kritikoak sortu nahi baditugu.

Liburuki honek bost atal nagusi ditu.

**LEHENENGOAN**, ikerketak eman dituen emaitza nagusiak biltzen dira.

**BIGARRENEAN**, sakonago aztertzen da TBren kontsumoa gaztetxoen artean.

**HIRUGARRENEAN**, Hezikomunikazioaren inguruko hausnarketa bat proposatzen dugu: dakigunetik ez dakigunera.

**LAUGARRENEAN**, eskolan bertan erabiltzeko material moduko bat aurkezten dugu, helburu jakin batekin: hezkuntza-sistemaren baitan eztabaidea sustatzea, hedabideen eta komunikabideen produktuak ikasgaitzat hartuak izan daitezen.

**BOSGARRENEAN**, ikus-entzunezko alfabetizazioaren alorreko zenbait adituk, gure galderei erantzunez, egin dizkiguten ekarpenak bildu ditugu.

Ikerketa honetan parte hartu dugun irakasleok ondotxo dakigu zein garrantzitsua den material honen sozializazioa. Horregatik egin dugu liburuki hau, zuekin konpartitzeko. Dena den, irakurle zuk zeuk ere jakin behar duzu material hau ez zatekeela posible izango hainbat pertsonaren laguntza izan ez bagenu. Lerron bitartez gure eskerrik benetakoena agertu nahi diegu, lehenik eta behin, gure inkestari musu-truk eta zintzo-zintzo erantzun zioten 1.882 neska eta mutiko guzti-guztiei. Zuek ere egin duyue posible lan hau. Mila esker. Gauza bera egin behar dugu inuesta hori argitzen eta betetzen lagundu zieten pare bat dozena inkestatzaleei. Zortean gaude eztabaidea-taldeetan parte hartu zuten 64 neska eta mutilekin ere, baita beraien presentzia ahalbidetu zuten tutoreekin ere<sup>1</sup>. Neska-mutilok ikasgeletatik “bahitu” egin genituen, beraien zuzendarien baimenarekin, noski.

<sup>1</sup> Eztabaidea-taldeak honoko ikastetxe hauetan egin genituen: Deustuko Aita Salesianoen ikastetxea, Iruñako San Ignacio ikastetxea, Iruñako San Fermín ikastola, Azpeitiko ikastola, Bilboko Txurdina-Artabe ikastetxe publikoa, Gernikako institutu publikoa, Tolosako Orixe institutu publikoa eta Gasteizko Koldo Mitxelena institutua. Lehenengo laurak pribatuak dira, eta, gainerakoak, publikoak. Lehenengo bietan eta Txurdinaga-Artaben eredu nagusia gaztelania da. Gainerakoetan, euskara.

Horrezaz gain, hamabi aditu elkarritzetatu genituen. Hamabiei gure eskerrona. Hauek izan ziren: Roberto Aparici, Carlos Lomas, Victor Moreno, Joan Ferres, Esther Torres, Arrate Egaña, Paco Luna, Germaine Hacala, Mikel Usabiaga, Luis Matillas, Fernando Marin, eta Amaia Benito del Valle. Ezin aipatu gabe utzi atal honetan Iñaki Martinez de Lunaren lana. Berari esker asko findu genuen inkestako galdera-sorta.

Esker anitz. Gauza bera esan daiteke Amets Arzalluzi buruz. Bere ekarpena funtsekoa izan da Ipar Euskal Herriko Hezkuntza sistema hobeki ulertzeko.

Hezkuntza Saileko teknikari eta ikus-entzunezkoetan aditu Josi Sierrak ere berebiziko laguntza eman digu. Bere ikuspuntuak gurea aberastu du.

Eskerrak ere Nekane Ramirez de la Piscina itzultzailarei lan honen ingelesezko ber-tsio profesionala posible egin duelako. Guztioi gure eskerronik sentikorrena. Lan honen autoretza beraiena ere bada.

Giltzarekin bueltaka hasi gara eta giltza horren peskizan jarraitzen dugu oraindik ere. Jomuga horrexekin abiatu genuen gure lana.

Irakurle: orain duzu ikerlan horren emaitzak irakurtzeko eta kritikatzeko parada. Zure ikuspuntu ere interesatzen zaigulako, hona hemen gure helbide elektronikoak.

Zain gauzkazue.

[txema.ramirezdelapiscina@ehu.es](mailto:txema.ramirezdelapiscina@ehu.es)

[joseinazio.basterretxea@ehu.es](mailto:joseinazio.basterretxea@ehu.es)

[esther.zarandona@ehu.es](mailto:esther.zarandona@ehu.es)

[petxo.idoyaga@ehu.es](mailto:petxo.idoyaga@ehu.es)



## 1. Nerabeak eta komunikabideak: amodia eta gorrotoa

“Heziketa komunikazioan”, eskolak gainditu behar duen irakasgaia

### 1.1. Sarrera

Informazioaren gizartea izugarri azkar garatzen ari da; planeta osoan, gainera. Garapen horren abiadura zorabiatzeko modukoa da nazio garatuenetan; motelagoa herri azpigaratuenetan. IKTB Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrieik egunero harritzen gaituzte. Astero sortzen da tramankulu, euskarri, erreminta edota jolas informatiko liluragarri bat, tramankulu berriren bat, ordura arte “azkenaren azkena” zena antigoaleko/bazterreko bihurtzen duen beste tresna bat.

Komunikazioaren inguruko ikerlariak ere aztoratuta dabilta, euren azterketa eta analisiak ia egunero aldatu behar baitituzte erronka berriei egokitu nahian. Herritar guztiok gaude zorabio horren eraginpean. Agindupean, esan beharko genuke, agian? Teknologia berri horiek, gainera, askotan sarean funtzionatzen dute. Manuel Castellsek 1998an erabili zuen “sare-gizartea” terminoa. Beroren bitartez, gauza asko definitzen ari dira, gaur egun: ekonomiaren globalizazioa, sareen bidez eratu diren erakundeak, lan-baldintzen malgutasuna eta ezegonkortasuna ekarri dituen eredu ekonomiko neoliberala, kontsumoen individualizazioa, kultura birtuala... Masa-hedabideen bitartez, kultura hori ikaragarri zabaldu da. Nonahi ageri da. Mundu interkonektatu eta dibertsifikatua du adierazle. Gure bizimoduaren zutoinak ere aldarazi ditu, baita espazio eta denboraren koordenadak ere.

Etxetik irten bezain laster, hamarnaka, ehunka sentsazio eta mezu desberdin jasotzen ditugu: kalean, autobusean, lantokian, dendan, etxeen... Era guztietako estimuluak dira: atseginak, desatseginak, neutroak... Etengabeko bombardaketa bat da: irudiak, mezuak, kodeak, seinaleak, zeinuak... tai gabe igarotzen dira gure begien aurrean, harik eta kaleidoskopio bat osatu arte; errealtitate polimorfoa. Sarritan, gure burmuinak ez du estimulu horiek prozesatzeko, aztertzeko edo asimilatzeko astirik. Era horretan, errealtitatea eremu lauso da, zabala oso, iragankorra, atzeman ezina. Kaleidoskopio hori interpretatzeko erremintak behar ditugu. Herritar arruntok, ordea, ez gara langintza horietan trebatuak izan. Eta beharrezkoa zaigu. Izan ere, gero eta gehiago dira hainbeste aldaketa eta fenomeno berriren aurrean nolabaiteko zorabio eta nahasmena nozitzen duten sektore sozialak: “Mundu hau joaten ari zaigu, gero eta gutxiago ulertzen dut”, entzuten da sarritan.

Ikus-entzunezkoaren paradigma barra-barra zabaldu den honetan, nabigatzeko

tresnak behar ditugu, etxeko egongelaraino egunero sartzen zaigun sentsazioen ikonosfera hori deskodetzen lagunduko digun tresna-multzoa. Horrek badu izen bat: Heziketa komunikazioan edo “Hezikomunikazioa”. Euskal Herrian -izen horrekin behintzat- apena ezagutzen den irakasgaia da. Beste herri batzuetan, berriz, dezente egin da ezagun. Komunikabideen kulturan alfabetatua -hots, mediatikoki alfabetatua- egon nahi duen orok landu beharko lukeen trebezia da.

Ikerketa honen bitartez, Euskal Herri osoko 14 eta 18 urte bitarte neska-mutilek duten ikus-entzunezko alfabetizazioa aztertzen da, baita komunikabideen aurrean duten ahalmen kritikoa ere. Azken urteotan euskal gazteriaren inguruan hainbat ikerketa soziologiko egin izan dira<sup>2</sup>. Hala ere, orain arte ez da inoiz aztertu gazte hauek prentsa, irratia, TB eta hedabide elektronikoen aurrean duten jarrera kritikoa. Hauxe izan da lehen ahalegina. Hauxe jasotako emaitza.

## 1.2. Orain arte egindakoa

*Media Literacy*<sup>3</sup> edo Ikus-entzunezko alfabetizazioaren inguruan argitaratu den bibliografian, garbi asko geratu da komunikazioa eta heziketa munduen arteko harremana. Izan ere, autore gehientsuenen aburuz, kontzeptuok errealtitate bereko alde biak dira, ezagutzaren gizartean<sup>4</sup> erabat txertaturik ageri diren terminoak, alegia (Fontcuberta, 2001; Kaplun, 1998).

Komunikazioa-heziketa harremanaren inguruan, Fontcubertak erabateko birplanteamendua egin zuen, ikuspuntu biak hankaz gora jarri. Bere ustez, horrek aldaketa dezente ekarri beharko luke eskola komunitatera: jarrera-aldaketa serio samarra eta trebezia berriak lantzea, besteak beste. Eta jakina, hezitzailaren papera gehiago baloratzea, bai gizartearren aurrean, baita aurrekontu publikoetan ere. Garai berriek paradigma berriak ekarri dituzte. Irakaskuntzak emozioen mundura

<sup>2</sup> Bereziki aipagarriak dira ondorengo autore hauek egindakoak: Elzo (1987, 1990), Ayestaran (1990); Ruiz Olabuenaga (1994); Apaolaza (1996); Arriaga (1997); Rivera (1998); Letamendia (1998); Garitaonandia (1999); Barandiarán (2001); Martinez de Luna (2001) eta Berrio-Otxoa (2002).

<sup>3</sup> Gure artean diziplina hau berri samarra baldin bada ere, hemendik kanpo batzuek 40 urte daramatzate gai honen bueltan. Eremu anglosaxoniarraren, bereziki aipagarriak dira, erabili duten ikuspuntu orokorragatik, ondorengo irakasle hauek egindako lanak: Mastermann (1979, 1980, 1985, 1993), Luckham (1975), Firth (1976), Golay (1973), Gerbner (1983), Jones (1984), Duncan (1996). Berriagoak dira beste hauek: Nathanson (2002, 2004) eta Buckingham (2005). Gaztelaniaz lan interesgarri asko egin dituzte beste irakasle/autore hauek: Kaplun (1998), Aparici (1994), García Matilla (1996, 2004), Aguaded (1998, 2000) eta Orozco (1999). Oso kontuan hartzekoa da, baita ere Huelvako Comunicar aldizkaritik azken hogeita bost urteotan egin den lan eskerga. Ikuspuntu instituzional batetik, Unescok ere lan dezente egin du. 1980az gerontik argitalpen ugari kaleratu ditu gai honen inguruan. Maila teorikotik aldenduta eta arlo praktikora etorrira, beste autore batzuk saiatu dira Media Literacy ikasgeletan sartzen. Horra hor, besteak beste, irakasle hauen lanak: Hall & Whannel (1964), Galtung & Ruge (1965), Berger (1972), Cohen & Young (1973), Hall (1977) eta Bonney & Wilson (1983) (azken hori Australian zentratuta). Barkaezina litzateke zerrenda honetatik kanpo uztea Celestin Freinet maisu frantziarra. Bera da Pedagogia herritarraren aita, baita kazeta eskolan sartu zuen aitzindaria ere.

<sup>4</sup> “Ezagutza” terminoaren ohiko esanahiren aldaketa ageriz zaigu hemen. Aldaera honek beste eremu batzuera egin du jauzi. Espazio berriak bereganatu, forma berriak hartu eta denbora-tarte berriak eskuratu ditu, informazio elektronikoaren esparruan bete-betean sartuz.

hurbildu behar du, prozesu hori arrazoiketaz harago doan egintza baita. Emozioek, gero eta garrantzi handiagoa hartu dute gaurko gizartean, maila guztietañ. Inteligentzia emozionalaren inguruko teoriek<sup>5</sup> horixe bera berretsi dute (Gadner 1983). Izan ere, Mar de Fontcubertaren aburuz, (2001:71), *emozioen munduan alfabetatuta dagoen ikasleak gaitasun handiago du komunikabideen mezua kritikoki aztertzeko*. Horregatik, komunikabideak lanabes oso eraginkor eta egokiak dira alfabetizazio emozionala erdiesteko eta, jakina, baita ere, hedabideen inguruko alfabetizazioa lortzeko.

Eremu anglosaxoniarraren hainbat erakunde daude ikus-entzunezko alfabetizazioan espezializatuta. Aitzindariak izan ziren *Center for Media Literacy* (CML) (<http://www.medialit.org/>) AEBetan (1977an sortua) eta Torontoko (Kanada) *Association for Media Literacy* (AML) (<http://www.aml.ca/>), 1978an sortua. Ikus-entzunezko alfabetizazioaren inguruan eman diren definizio guztietañ erabilienetako eta laburrenetako bat CMLk eman zuen 1992an. Honokoa, alegia:

*Ikus-entzunezko alfabetizazioa forma desberdineko bedabideak sortzeko aztertzeko eta erabiltzeko dugun gaitasuna da.*

Urteak aurrera egin ahala, definizio hori osatuz joan da. Gaur egun CMLk honela birdefinitu du:

*Ikus-entzunezko alfabetizazioa XXI. mendeko beziketa da. Berorren bitartez, marko bat eskaintzen zaigu, erreminta-multzo bat. Lanabes horiek komunikabideetarako sarbidea ahalbidetzen digute, baita komunikabideen analisia, ebaluazioa eta mezuak sortzeko gaitasuna ere, edozein izanda bere forma edo euskarria: papera, ikus-entzunezkoa edo Internet. Ikus-entzunezko alfabetizazioak aukera ematen digu komunikabideek gaurko gizartean betetzen duten funtzioa ulertzeko. Trebezia honen bitartez, herritarra errazago du bere burua egoki azaltzea demokrazian, baita ikerketarako bideak eskuratzea ere.*

AML ere, funtsean, bat dator gogoeta horrekin. Beraien iritziz ikus-entzunezko alfabetizazioa gizakiok komunikabideak sortzeko, kodetzeko, ebaluatzen eta aztertzeko dugun gaitasun kritikoa da, euskarria edozein izanda. Nabardura askotxo egin litezke, batik bat “alfabetizazioa” terminoaren inguruan. Ez da hori, ordea, esku artean duzun ekarpenaren helburu nagusia. Auzi honekin amaitzeko, eman dezagun jarraian David Buckingham irakaslek (2005:71) termino honen inguruan egin duen gogoeta:

*Ikus-entzunezko alfabetizazioa komunikabideak interpretatzeko beharrezko diren gaitasunak, trebeziak eta ezagutzak eskaintzen dizkigun diziplina da.*

<sup>5</sup> Gadner-en iritziz adimen-kozientea ez da gizakion adimena epaitzeko dagoen neurri zehatz bakarra. Berak zazpi eremu desberdinaren banatu du giza adimena: inteligentzia logiko-matematikoa, inteligentzia lingüistika, inteligentzia espaciala, inteligentzia fisiko-kinestesika, inteligentzia naturalista, inteligentzia musicala eta inteligentzia intra / interpersonala. Salovery eta Mayer-en aburuz, inteligentzia emozionala hauxe litzateke. Norberaren eta besteen sentimenduak egoki kudeatzeko eta beroriek pentsamendurako eta egintzarako bideratzeko gizakiok dugun gaitasuna.

Heziketa komunikazioan edo “Hezikomunikazioa” ikus-entzunezko alfabetizazioa lortzeko ezinbestekoa den lanabesa da. Gai honek nazioartean hartu duen garrantziaren adierazle da Unescok dedikatu dion arreta. Parisen, 1979an egindako bilera batean garbi utzi zuen (Sz. Bravo, 1991:420) “Hezikomunikazioa” diziplinaren barruan hainbat kontu sartzen zirela:

*Heziketa komunikazioan funtsezkoa da. Berorren bitartez, komunikabideak (arte praktiko eta tekniko bezala ulertuta) ebaluatzeko, sortzeko eta erabiltzeko aukera eskuratzentz dugu. Maila guztietan komunikabideak ikasteko eta irakasteko errazten digun diziplina da. Heziketa honen bitartez, gizakiok hobeto ulertzentz dugu zein den masa-hedabideek gaurko gizartean betetzen duten funtzioa, zein bere oihartzun soziala eta zeintzuk diren komunikazio mediatizatuaren ondorioak ere. Tresna honen bitartez, hobeto ulertzentz da komunikabideek sortzailearen lanean duten eragina edota nolatan arautzen den komunikabideetarako sarbidea.*

Hezikomunikazioa gehiago garatu da euren eskola-curriculumean -nahitaezko irakasgaitzat- sartuta duten herriean. Horrela gertatu da Australia, Toronto eta Erresuma Batuan. Bertoko ikasgeletan hogeita bost urte baino gehiago daramatzate diziplina hau irakasten. Beste zenbait herritan hautazko irakasgaitzat daukate. Latinoamerikako zenbait estatutan egiten ari diren erreformetan ageri da irakasgai hau, komunikazioa eta komunikabideak ikasteko bide bezala. Hori gertatzen da, besteak beste, Argentina eta Txilen, non diziplina hau azaldu den Hizkuntza, Plastika eta Gizarte-zientziak bezalako irakasgaien inguruan. Brasil, Peru, Mexiko, AEB eta Alemanian, berriz, irakasgai hau, sarritan, Helduen Heziketari begira eratzen diren programetan agertzen da.

Hezikomunikazioa eskola-curriculumean nola txertatu behar den gaiaren inguruan, ez dago erabateko adostasunik. Aditu gehientsuenak bat datozen esatean diziplina hau sartu egin behar dela eskola-curriculumean zehar lerroko irakasgai modura (Masterman, 1993; Kaplún, 1998; Aparici, 1994; García Mantilla, 1996; Orozco, 1998). Beste batzuek, berriz, defenditzen dute irakasgai hau nahitaezko diziplina dela (Carlos Lomas, 2004). Edozein kasutan, garbi dago ere, hezikomunikazioak -gaur eta hemen- ez dituela bere potentzialtasun guztiak garatu, besteak beste, material eta profesional falta nabarmena daudelako maila guztiak.

Komunikabideen Heziketarako Munduko Kontseiluko presidente Roberto Aparicik uste du 80ko hamarkadaz geroztik hiru planteamendu desberdin agertu zirela gai honen inguruan:

- Ikuspuntu teknizista. Irakasleak teknologoak dira, baina ez dute komunikabideen inguruan apena gogoetarik egiten.
- Efektuen gainean enfasia egiten duen ikuspuntua. Komunikabideek eragindako aldaketak ikasleek aztertzen dituzte.
- Ikuspuntu kritikoa. Komunikazio partehartzailearen eredu erabiliz eratortzen den ikuspuntua, paradigma konstruktibistez baliatuz.

Edozein kasutan, Apariciren aburuz, diziplina hau ez dago zabalduta irakaskuntza munduan: ikasleak ez daude ohitura mezuak sortzen, eraikitzen edota kritikatzen, ez daude komunikazio partehartzaile eta demokratikoan iaioak.

Gai hauen inguruan, Latinoamerikan Mario Kaplún autoritate bat da. Bere ustez (1998:13), Hezikomunikazioa ezinbesteko tresna da bestelako eredu komunikatiboa lortzeko bidean. Berak proposatzen duen eredua dezente aldentzen da gaur egun dugun sistema komunikatibo nagusitik.

Azken urteotan eztabaidea teorikoa berpiztu da. Gaur egun, hezikomunikazioaren eremua zabaldu egin da, besteak beste, teknologia berriek ireki dituzten esparruak ere dezente handitu direlako. Gaur egun diziplina honek hainbat kontu bereganatu ditu: irudiaren irakurketa, kultura mediatikoa, trebezia kritikoak, mediorekiko distantzia, ikusle interaktiboa, sormena, irudimena, e.a. Bi ikusmolde oso desberdin jarri dira aurrez aurre:

- Komunikabideetarako heziketa (ikuspuntu teknizista) eta
- Komunikabideen bidezko heziketa (ikuspuntu kritikoa).

Bien arteko talka nabaria da, oso gaur egungoa. Ikuspuntu pedagogiko oso desberdinak islatzen dira norgehiagoka horretan, emozio-jarreretan txertatuta dauden proposamen desberdinak eta, sarritan, diskurso akademikoaz gaindi dauden ikusmoldeak ere.

Teknologia berrien etorrera masiboaren ondorioz, euskal gazteek denbora gehiago eskaintzen diote hedabideen kontsumoari eta, bereziki, komunikabide elektronikoei. AEBetan adibidez, 11 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoeik, bataz beste, sei ordu eta erdi baino gehiago eskaintzen diote egunero hedabideei (Roberts & Foehr, 2004:190). Bai, lagun, ongi irakurri duzu: sei ordu eta erdi baino gehiago egunean. Eguneko zereginen artean, berorrek hartzen du denbora-tarterik handiena. Eskolan baino denbora gehiago ematen dute, beraz, musika entzuten, bideo-jolasekin, ordenagailu edota TBren aurrean. *Media-generation* bataiatu dute.

Kantitatea eta kalitatea ez dato bat, ordea. Izan ere, azken urteotan egin diren azterketetan (Considine, 2002), garbi gelditu da, Hezikomunikazioaren inguruan, AEBak dezente atzeratuta doazela, eremu anglosaxoniarreko beste herriekin alderatuz gero, behintzat, Kanada, Erresuma Batua edota Australiarekin, adibidez.

Horrelako azterketarik ez da egin gure artean. Orain arte, behintzat. Gabezia hori akuilu intelektuala izan da ikerketa-talde honentzat.

### 1.3. *Hipotesiak eta iker-galderak*

Ikergaiaren egoera eta azken urteotan egin diren ikerketak aztertu eta gero, ikerketa-taldeak ondorengo hipotesiekin egin du lan:

H1 Ikus-entzunezko alfabetizazioaren inguruan, euskal nerabeek duten gabeziak lotura zuzena du Hezikomunikazioa irakasgaia eskola-curriculumean txertatu ez izanarekin.

H2 Ekipamendu teknologiko altuak (aparailu asko edukitzeak) ez du, berez, ikus-entzunezko alfabetizazio-maila ona bermatzen.

H3 Masa-hedabideek ez dute eragin nabarmenik euskal nerabeen iritzietan.

Hipotesi horiek ondorengo iker-galdera edo *Research Questions* hauek ekarri zituzten:

RQ1: Zein da euskal gazteek duten ekipamendu teknologiko maila?

RQ2 Zenbateraino pertsonalizatu da euren kontsumo mediatikoa?

RQ3: Noiz eta nola erabiltzen dituzte teknologia berriak, Internet edota sakelako telefonoak?

RQ4: Gai al dira jasotzen duten informazioa aztertzeko, laburtzeko eta sailkatzeko?

## **1.4. Metodologia**

Ikerketa taldeak metodo kuantitatibo eta kualitatiboak uztartu zituen. Zehatz-mehatz esanda, hiru azterketa hauek egin genituen, ordena honetan gainera:

- SAKONEKO ELKARRIZKETAK. Gai honen inguruan aditu diren hamabi pertsona elkarritzetatu genituen, erdiegituratuta zegoen galdera-sorta erabiliz.
- EZTABAINA-TALDEAK gaztekin. 14-18 urte bitarteko 64 euskal nerabe elkarritzetatu genituen.
- IRITZI-AZTERKETA. Euskal Herri osoko 1.882 gaztek erantzun zuten geuk helarazi genien galdera-sorta zabalari.

### **1.4.1. Sakoneko elkarritzetak**

2004ko iraila eta azaroa bitartean ikerketa taldeak ikus-entzunezko alfabetizazioaren inguruan aditu diren hamabi pertsona elkarritzetatu zituen, Euskal Herrikoak zein kanpokoak<sup>6</sup>. Den-denek harreman zuzena izan dute edo dute “Heziketa komunikazioan” gaiarekin. Elkarritzeta hauen bitartez, ikergaiaren lehen diagnostikoa egin nahi izan genuen. Horretarako guk baino gehiago zekiten pertsonak aukeratu genituen. Zer ikertu edo teorizatu duten ezagutu nahi genuen eta, aurrera begira, zeintzuk diren beraiek egiten dituzten aurreikuspenak.

---

<sup>6</sup> Ikus. liburuki honen azken atala.

Elkarritzeta guztiak pertsonalak izan ziren<sup>7</sup>. Guztiei erdiegituratuta zegoen gidoia helarazi genien aldez aurretik. Galdetegian hamabost itaun zeuden. Lehenengo seiak “Gizartea eta masa-hedabideak” epigrafepean zeuden. Orokorrak ziren. Berorien bitartez, jakin nahi genuen zein den -haien iritziz- komunikabideek 14-18 urte bitarteko nerabeengan duten eragina. Bigarren atala (7 eta 13 itaunen artekoak) zabalena zen. Berorren bitartez, jakin nahi genuen zein den Hezikomunikazioaren egoera inguruko herriean. Azken atalak bi galdera baino ez zituen. Berton, adituak aurrera begira jarri genituen, etorkizuna nola irudikatzen duten jakin nahi baikuen.

Elkarritzeta egiteko Gaitán eta Piñuel (1998:95) irakasleek emandako aholkuak jarraitu genituen. Solasaldi guztiak grabatuak eta transkribatuak izan ziren. Gero, material hori interesatuari helarazi genien, berek beren oniritzia eman ziezaioten. Adituekin izandako bilera horietan informazio asko jaso genuen, oso interesarria. Material hori erabakigarria gertatu zitzagun gerora nerabeekin antolatu genituen eztabaidea-taldeak hobeto egituratzeko, baita iritzi-azterketan sartu genituen galderak hobeki egituratzeko ere.

#### **1.4.2. Eztabaidea taldeak**

Adituekin egon eta gero, eztabaidea-taldeak<sup>8</sup> burutu genituen. Fase hura 2004ko azaroan izan zen. Euskal Herriko zortzi ikastetxetara joan ginenean, publikoak zein kontzertatuak, hizkuntza eredu guztiak kontuan hartuta.

Talde bakoitza birritan elkarritzetatu genuen. Topaketa bakoitzak ordu eta erdi iraun zuen, gutxi gorabehera. Talde bakoitzean zortzi nerabe zeuden: lau neska eta lau mutil, adin tarte guztietakoak (14-18). Hasierako topaketa lehen hartu-eman bezala planteatu genuen. Neska-mutikoek inkesta bat bete behar zuten. Bigarren topaketan, inkesta horretako erantzunak izan ziren solasaldiaren abiapuntu. Bigarren egunean, neska-mutikoek ikertzaleek eramandako ikus-entzunezko materiala aztertu behar zuten. Zortzi iragarki eta sei albiste ziren. Material horietan agertzen ziren protagonista gehienek bazuten zerikusirik beraien eguneroko errealitatearekin.

Ikerketari ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoz, iragarkien inguruan nerabeek egiten zuten irakurketa aztertzerakoan, *priming efektua* deritzon teknikan oinarritu ginenean (Fiske & Taylor, 1991; Eunkyoung & Berkowitz, 1996)<sup>9</sup>.

<sup>7</sup> Solasaldi guztiak pertsonalak izan ziren Joan Ferres eta Victor Moreno irakasleekin egindakoak salbu. Agen da arazoak zirela eta, elkarritzeta horiek e-mail-ez egin genituen.

<sup>8</sup> Eztabaidea-taldeak Gizarte-Zientzietan oso garatuta dagoen ikertzeko teknika bat da Klapper, 1974 eta Lazarfeld & Katz, 1979.

<sup>9</sup> Masa-hedabideen bitartez informazio bat jasotzen dugunean, ondorengo denbora-tarte laburrean, pertsona ororen buruan zenbait ideia aktibatzen dira. Antzeko esanahia duten ideiak dira, normalean. Ideiok gai dira beste ideia edo irudi batzuk aktibatzeko. Semantikoki harremanetan dauden burutazioak izan ohi dira (Eunkyoung y Berkowitz, 1996:70). Gure lanak horixe aztertu zuen: iragarkiek nerabeengan sortutako erreakzioak, alegia. Teknika hori oso interesarria gertatu da zenbait fenomenok -komunikabideen kontsumoa, indarkezia, bideo-jolasak edota kirola, esaterako- gizakion portaueretan duten eragina aztertzerako orduan (Frederick, 1984; Mehrabian & Wixen, 1986; Bandura, 1986).

### **1.4.3. Iritzi-azterketa**

Ikerketa taldeak emandako aholkuei jarraiki, CIES enpresak 2005eko martxoan eta apirila bitartean iritzi-azterketa egin zuen Euskal Herri soan. Guztira eskolatuta zeuden 14 eta 18 urte bitarteko 1.882 neska-mutikoak elkarrizketatu ziren<sup>10</sup>.

Unibertso osoa 95.212 ikaslek osatzen dute. Horiek dira DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoan daudenak (3ème, Iparralderen kasuan).

Elkarrizketak beraiek bete zitzuten, beti ere inkestatzileen laguntzarekin, noski. Guztira, 94 gela elkarrizketatu ziren 35 zentro desberdinaren banatuta. Proportzionaltasuna eta aleatoriotasunari jarraiki osatu zen lagina, herrialdea, zentroaren titularitatea (publikoa ala pribatua), ikasturtea eta hizkuntza-eredua kontuan hartuta. Ikastetxe horien kokapena eta berton egindako elkarrizketa-kopurua hauxe izan zen: 6 Araban (322 elkarrizketa), 8 Bizkaian (433), 8 Gipuzkoan (474), 8 Nafarroan (367) eta 5 Iparraldean (286). Datu orokorretarako errakuntzarteara + / - %2,2 izan zen. Konfiantza maila %95ekoa izan zen (non p=q=0,5%).

Galdetegia osatzerakoan, nerabeek hizkuntza aukera zezaketen: euskara, gaztelania edo frantsesa. Guztira 47 galdera ziren: 9 orokorrak, 3 prentsaren ingurukoak, 3 irratiai buruzkoak, 5 TBri buruz, 3 Interneti buruz, 2 liburuen irakurketari buruz, 1 publizitateari buruz, 1 ekipamendu teknologiko pertsonalari buruz (zeukan aparailuak) buruz, 2 sakelako telefonoei buruz eta gainerakoak (18) guztiz teknikoak (adina, hizkuntza-eredua, udalerria, bizilekua.e.a.). Guztira, nerabeek 20-25 minutu erabili zuten inuesta betetzeko.

## **1.5. Emaitzak**

### **1.5.1. Sakoneko elkarrizketak**

Lehenik eta behin, elkarrizketatuek beren kezka agertu zuten ikus-entzunezko alfabetizazioaren inguruan Hezkuntzako agintarien artean sumatzen duten ardura faltagatik. Batzuen iritziz -Aparici, Lomas, Moreno, Matillas eta Ferrés- jarrera hori bereziki kezkagarria da gurea bezalako gizarte batean, non hedonismoa, kontsumismoa edota herritarren zentzu kritiko falta jaun eta jabe diren.

Hezikomunikazioa oso modu puntualetan sartu da gure ikasgeletan, ez modu arautuan. Euskal Herrian azken urteotan garatu diren ekimenak gaiarekin sentsibilizatuta dauden talde edota pertsonen iniziatiiben ondorioak izan dira. Borondate oneko hezitzaileak eta gurasoak izan dira ekimen horien sustatzaileak.

<sup>10</sup> Euskal Herri osoan derrigorrezko irakaskuntza 16 urte artekoa da. 16 eta 18 urte bitarteko gazteen artean ere, eskolatze-indizea oso altua da. Eustat Euskadiko Estatistika Euskal Institutuaren arabera, 16 urtekoen artean indize hori %90koa da; 18 urtekoen artean, berriz, %74,9koa.

Hezkuntzako agintariekin ez dute Unescok emandako aholkua jarraitu. Alde horretatik, oso adierazgarria da Victor Moreno irakasleak utzi zigen gogoeta<sup>11</sup>:

*Alde guztietaik, gure hezkuntza-sistema kale egiten ari da, arlo honetan bereziki. Egunero ikusten eta erabiltzen ditugun euskarriak -komikiak, publizitatea, kazetak... - ez daude gure ikasgeletan. Kanpoan geratu dira. Ez enborrezko irakasgai gisa, ezta zebar lerroko bezala ere. Gure gizartea ikonosfera bat biburtu da, baina gure institutuek besituta jarraitzen dute, hormek inguratutako guneak dira.*

Kontsultatu ditugun irakasle gehienek uste dute gai hau eskola-curriculumean sartu egin behar dela, zebar lerroko irakasgai bezala. Bat datoz, alde horretatik, Leo Masterman irakasleak defenditzen duen jarrerarekin(1993:256). Hezitzileen heziketan hogeita hamar urte luzeko esperientzia duen Luis de Matillasek gehiago zehazten du oraindik, zeharkakotasun horrek lau eremutan izan beharko luke isla: Hizkuntza, Gizarte, Plastika eta Etikan. Bigarren Hezkuntzako katedradun Carlos Lomasek, berriz, uste du Hezikomunikazioa enborrezko irakasgai bezala hartu behar dela, Hizkuntza, Lengoia, Gizarte edota Matematikaren parean<sup>12</sup>:

*Zebar lerroko guztiona eta inorena da (...) Jendea obiko edukietan gotortu egiten da. Sexismo edota ikus-entzunezko alfabetizazioa bezalako kontuak bigarren mailakotzat hartzen dira, bitxikeriatzat, aldian bebin landu beharreko zerbaitei balira bezala.*

Ikus-entzunezko alfabetizazio falta ez da euskal nerabeei soilik dagokien zerbaitei. Irakasleria bera ere, askotan, analfabeto sentitzen da gai hauenurrean. Bataz besteko adina altua da gure artean: 45 urte ingurukoa. Irakasleek Hezikomunikazioa zer den ez badakite, nola jakingo dute irakasgai hau nola eman! Orain arte ez zaie heziketa espezializatua eskaini. Materia hau eskaintzen duten irakasle apurrik autodidaktak izan dira.

Iritzia eman diguten aditu guztiak bat etorri dira esatean ongi asko bereiztu behar direla Hezikomunikazioa alde batetik eta Informatikaren irudikeria teknologikoa, bestetik. Gauza desberdinak dira. Ikuspuntu instrumentalak gainditu egin behar da; hots hedabide-*etarako* heziketaz harago joan behar da, etika komunikatiboan sakonduz eta komunikabideen *bidezko* heziketara hurbilduz. Sagua eta teklatua nola erabili behar diren bezain garrantzitsua da zertarako erabili daitezkeen erakustea. Interneten nola nabigatzen den bezain garrantzitsua da, bilatzaileetan edukiak nola topa daitezkeen azaltzea.

Aurrera begira, aditu hauek oso argi daukate Hezikomunikazioa dela etorkizuna, areago orain eta hemen, non apustu teknologikoak izugarrizko abiada hartu duen une honetan. Hezikomunikazioa ikus-entzunezko arloan pertsona alfabetatuak sortzeko biderik egokiena da. Egiteko hori, ez da, ordea, eskolaren zeregina bakarrik. Familiak berak eta komunikabideek ere badute zeresana eta zerikusirik kontu honekin. Aditu gehientsuenek komunikabideetako arduradunei gai hauen inguruari arreta gehiago ipintzea eskatu diete. Batzuek argi eta garbi defenditzen

<sup>11</sup> Ikerketa-taldeari emandako elkarrizketatik ateratako iritzia (2004-10-18)

<sup>12</sup> Ikerketa-taldeari emandako elkarrizketatik ateratako iritzia (2004-09-24).

dute komunikabideen kontrol etiko, sozial eta demokratikoaren beharra. Joan Ferres irakasleak honela justifikatzen du<sup>13</sup>: *Elikadura kontrolatzeko neurri zorrotzak baldin badira, zergatik ez dira bada egongo izpirituaren iturri diren beste horiek kontrolatzeko?*

### 1.5.2. Eztabaidea-taldea

Elkarritzetatu genituen Euskal Herriko 64 nerabeek eman zizkiguten erantzunetan nabardura gehixeago ageri ziren. Adostasun nabarmenak egon ziren, baita desadostasunak ere. Oro har, esan liteke euskal nerabeek jarrera kritikoa daukatela komunikabideen aurrean, bereziki 16-18 urte bitartekoentzat. Hala ere, aitortu egiten dute mendekotasun nabaria dutela komunikabideen aurrean. Maitasun/gorrotozko harremana da arau.

Komunikabideen kontsumoa banan-banako jarduera bilakatzen ari da, TB eta Interneten erabilera, bereziki. Euskal Herriko neska-mutikoek gero eta gehiago nabigatzen dute Internetetik edota ikusten dute TB bakarrik euren logeletan. Ez dute, beraz, inoren zaintzarik. Ez dute egintza hori sozializatzen gurasoekin edota neba-arrekin. Horrek, gainera, askatasun sentsazioa ematen omen die.

Famili giroan ikusten diren saio bakarrenetakoentzat albistegiak daude. Horrek, gainera, ideia-trukea sortarazten du senideen artean<sup>14</sup>:

*Telebistako albisteak elkarrekin ikusten ditugu. Iruzkinak egoten dira. Gurasoek baliatzen dute egoera zer dagoen ongi eta gaizki esateko (14 urteko neska).*

14/15 urte bitarteko neska-mutikoak kenduta, Euskal Herriko etxeetan ez dago gurasoentzat aldetik -komunikabideen kontsumoari dagokionez- arau urrun edo finkorik. Nahi duenak nahi duena ikusten du nahi duen orduan. Informatzerako orduan, gazteek nahiago dute TB, prentsa edo irratia baino<sup>15</sup>:

*Zertarako irakurri kazeta jakinda telebistan duzula den-dena laburtuta eta irudiekin? (14 urteko mutila).*

Helduago diren nerabeak kritikoagoak dira komunikabideek eskaintzen dituzten albisteekin, batik bat, TBrerak. Ongi asko dakite zer den informazio txukuna. Horregatik zorrotz kritikatzen dute informazioaren munduan sumatzen den objektibotasun falta<sup>16</sup>:

*Manipulazioa da gertatu denaren zati bakar bat kontatzea, gertaera baten aurrean dauden ikuspuntu desberdinaren berri ez ematea edota iritzia sartu informazioa balitz bezala (18 urteko mutila).*

<sup>13</sup> Ikerketa-taldeari emanako elkarritzetatik ateratako iritzia (2004-11-02).

<sup>14</sup> Eztabaidea-taldeetan jasotako iruzkina

<sup>15</sup> Ibidem.

<sup>16</sup> Ibidem.

Bereziki kritikoak dira TBk gazteen inguruan ematen duen irudiaren inguruan<sup>17</sup>:

*Denok gara ‘porretak’ edo alkoholikoak eta, Euskal Herriaz mintzo direnean, terroristak* (16 urteko mutila).

Baina, bestaldetik, TBri nolabaiteko plusa ematen diete, albisteak emateko orduan irudiez baliatzen direlako<sup>18</sup>:

*Telebistak gauzak erakutsi egiten digu. Zuk zeuk zeure begiez ikusten dituzu* (17 urteko mutila).

Sarritan irudia eta errealtitatea nahastu egiten dituzte. Ez dira jabetzen -azken mutiko horren aipua bereziki adierazgarria da- TBko albisteak aukeraketa baten ondorioz egindako hautua dela, errealtitateak izan ditzakeen milaka errepresentazio posibleetatik bat baino ez dela. Ez dute ezagutzen irudiaren balio erretorikoa edota muntaiak izan lezakeen eragina. Alde horretatik, bai esan liteke euskal nerabe asko eta asko mediatikoki analfabetoak direla.

Hala ere, galdeztzen zaienean, beraiek errealtitatea eta fikzioa primeran bereizten dituztela erantzuten dute. Tipo horretako nahasmenak ez dira bereak: *Horiek umeen eta adineko jendearen akatsak dira; ez gureak*.

Amaitzeko esan dezagun, jarrera kritikoa ere berriro agertzen dela publizitatearen munduan ageri diren estereotipo sexistak eta kontsumistak epaitzerako orduan. Baino aldi berean, -maitasun/gorroto harremana, berriro- aitortzen dute beraiek ere oso erraz ematen dutela amore eredu horien aurrean:

Publizitatearen mundua faltsua da, tranpa bat. Baino erori egiten gara, azken batean, guri ere neska edo mutil eskulturalak izatea gustuko dugulako (17 urteko neska).

### 1.5. 3. Iritzi-azterketa

Telebista da, zalantza izpirik gabe, nerabeen artean komunikabide nagusia. Bigarren postuan, baina askoz atzerago, ageri dira irratia eta Internet. Sarearen erabilera egunetik egunera gehitzen ari da 14-18 urte bitarteko gazteen artean. Inkestatu ditugun nerabe guztien %39k etxean daukate sarerako sarbidea, dela beraientzako soilik edota gainerako senideekin konpartitua. Deigarria da prentsa eta testu liburu ez diren argitalpenen irakurketa-indize baxuak<sup>19</sup>.

<sup>17</sup> Ibidem.

<sup>18</sup> Ibidem.

<sup>19</sup> Iritzi azterketa honen xede nagusia ez zen nerabeek zenbat minutu ematen duten TBren aurrean, irratia entzuten edota kazeta irakurtzen. Hala ere, azpimarratu behar da Sofres eta EGM enpresek 2005ean emandako datuen arabera, EAE Euskal Autonomia Erkidegoko 13 eta 24 urte bitarteko gazteek, oro har, TB eta irratia gutxiago kontsumitzen zutela Espainiako estatuan baino, nahiz eta prentsa zertxobait gehixeago irakurri. Zehatz izanda, EAEko gazteek 119 minuto igarotzen dute TBren aurrean. Espainiako estatuan 142 minuto da bataz bestekoa. Irratiari dagokionez, EAEko gazteek 162 minuto entzuten dute aparailu hori egunero; estatuan, berriz, 176. Prentsaren inguruan, datuak aldatu egiten dira: EAEko nerabeek 33,2 minuto dedikatzen diote egunero kazeta irakurtzeari; estatuan, berriz, 32,8.

**1. taula: Komunikabideen kontsumoa 14-18 urte bitarteko gazteen artean**

| Astean               | Prentsa | Irratia | Telebista | Internet | Liburuak* |
|----------------------|---------|---------|-----------|----------|-----------|
| 5-7 aldiz            | %18     | %38     | %78       | %35      | %12       |
| 3-4 aldiz            | %14     | %15     | %13       | %21      | %15       |
| 1-2 aldiz            | %31     | %17     | %05       | %20      | %27       |
| Inoiz edoia<br>inoiz | %33     | %25     | %02       | %20      | %38       |
| Ed/ Ee               | %04     | %05     | %02       | %04      | %08       |

\* Testu-liburuak kontuak hartu gabe. Iturria: CIES, 2005

Lehenengo bi baloreak batuz gero -astean 3 aldiz baino gehiago- bigarren hedabidea Internet da, irratia, prentsa eta liburuuen gainetik.

Esanguratsua ere bada gazteek duten ikus-entzunezko ekipamendu teknologikoa. Aparailu ugari dituzte. Gehiegi? Izarren artean, ñirñirik distiratsuena sakelako telefonoak egiten du. Datu batzuk espero izatekoak baziren ziren (Walkmana, musika aparailuarena edota irratiaarena) beste batzuk harrigarriak gerta daitezke. Adibidez, gaur egun, gazteen heren batek badu ordenagailua berarentzako bakarrik. Inkestatuenei laurdenak badu Interneterako sarbide pertsonala eta TB aparailua bere gelan. Adituen elkarrizketetan eta eztabaidea-taldeetan ageri zen joera bera -kontsumoa bana-banako jarduera bihurtzen ari dela, alegia- berretsi da hemen.

**2. taula: Nerabeen ikus-entzunezko ekipamendua (14-18 urte)**

|                        |                      |
|------------------------|----------------------|
| Aparailu mota          | Erabilera pertsonala |
| Sakelako telefonoa     | %88                  |
| Walkman / Discman      | %80                  |
| Musika aparailua       | %70                  |
| Irratia                | %52                  |
| MP3 errepruditzalea    | %47                  |
| Argazki kamera         | %36                  |
| Ordenagailua           | %33                  |
| Bideo-jolasen kontsola | %30                  |
| Interneterako sarbidea | %25                  |
| Telebista aparailua    | %24                  |
| DVD errepruditzalea    | %16                  |
| Bideo errepruditzalea  | %12                  |
| Bideokamera            | %10                  |

\* Iturria: CIES, 2005

Gazteek nahiago dute lagunekin solasean egon TB ikusten egotea baino; aste barruan, nahiz asteburuetan. Etxean ez da gauza bera gertatzen. Iritzi-azterketak emandako datuen arabera, euskal gazteek denbora gehiago ematen dute kutxa katodikoari begira gurasoekin hitz egiten baino. Joera hori nabarmenagoa da asteburuetan.

### 3. taula: Aisialdiaren kudeaketa gazteen artean \*

| Jarduera mota          | Aste barruan | Asteburuetan |
|------------------------|--------------|--------------|
| Lagunekin hitz egin    | %63          | %86          |
| Familiarekin hitz egin | %42          | %50          |
| Telebista ikusi        | %42          | %57          |

\* Datu honek adierazten du jarduera honi egunean bi ordu baino gehiago dedikatzen dioten gazteen kopurua.

Iturria: CIES, 2005

Euskal gazteriaren portaerak eta jarrerak hainbat azterlanen iturri izan da, azken urteotan. Usteak, ustekizunak eta espekulazioak askotan nahastu dira, funtsik gabe, datu zehatzetan oinarrituta egon gabe. Eskola-giroa gaitz guztien iturri bezala agertu da, behar baino gehiagotan. Iritzi-azterketa honetan, berriz, garbi gelditu da gazteen ideiak eraiki eta osatzerako orduan, benetako eragina duten instituzioak familia eta lagun-koadrila direla eta ez eskolan jasotzen duten heziketa. Komunikabideek ereoso eragin mugatua dute gazteen iritziak eraikitzerako orduan.

Gazteei galdeitu egin zitzaien ea nork zuen beraien iritzietan eragin gehien. Eta horretarako lau gai aukeratu ziren: politika, sexu-kontuak (gauza jakina da: nerabetasunean hormonek borbor egiten dute), drogak (mundu horrekin lehengo hartu-emana dezente aurreratu da azken urteotan) eta inmigrazio-kontuak (eskoletan bereziki nabarmendu den fenomenoa delako galdeitu nahi genuen).

### 4. taula: Politika, sexu, droga edota inmigrazio kontuetan nork du eragin handiagoa gazteen artean?

|                         | Eragin maila * |
|-------------------------|----------------|
| Gurasoak                | 158            |
| Lagunak                 | 138            |
| Komunikabideak          | 97             |
| Institutuko irakasleria | 42             |
| Neba-arrebak            | 38             |

\* Zifra honek adierazten du aldagai bakoitzerako -politika, sexua, drogak eta inmigrazioa- inkestan jasotako baloreen batura.

Iturria: CIES, 2005

Taula horren inguruan zenbait nabardura egin behar dira. Esan beharra dago, adibidez, sexu eta droga kontuetan gazteen erreferente nagusia lagun-koadrila dela eta ez familia. Politika eta inmigrazio kontuetan, berriz, erreferentziazko instituzioa familia da, etxeko giroa, alegia. Irakasleriaren eta komunikabideen eragina atzerago gelditzen da kontu guztietan.

Bestalde, komunikabideak apena dira hizpide eskolan. Askoz gehiago hitz egiten da albisteez edota entretenimenduzko saioez lagun giroan edo etxeen, eskolan baino. Gaur egun, ikasgeletan albisteak ez dira existitzen, ez dira aztertzen, ez dira testu edo iruzkin-iturri ere.

1920an Célestin Freinet maisu frantziarrak prentsa eskola-giroan sartu zuen. Bere pedagogia ausarta eta berritzaitzat hartu zen. Orduan. Ia mende oso bat igaro da, alperrik?

##### **5. taula: Komunikabideetako edukiak hizpide gisara**

|                       | Eskolan | Etxean | Lagunen artean |
|-----------------------|---------|--------|----------------|
| Albisteak             | %38     | %74    | %61            |
| Entretenimendu saioak | %26     | %75    | %87            |

Iturria: CIES, 2005

Hala eta guztiz ere, gazteak kritikoak dira. Beraien ustez, komunikabideak “manipulatuta daude eta boteretsuen tresna dira”. Jarrera kritiko hori telebistetako albistegiak epaitzerakoan bereziki nabarmenzen da. Hemen differentzia nabarmenak agertzen dira Hego eta Ipar Euskal Herriko gazteen artean. Hegoaldean –non aztertu dugun unibertsu osoaren %90,2 bizi den– gazteak askoz zorrotzagoak dira Iparraldean baino. Madrildik emititzen duten TB kate gehienak –TVE1 eta 2 eta A 3, bereziki– gaizki edo oso gaizki baloratuta daude gazteen artean. Salbatzen den bakarra T 5 da. ETBko kate biek ere balorazio ona edo oso ona jaso dute nerabeen artean, bai EAEn, baita Nafarroan ere. Iparraldeko gazteen iritziak ez daude hain polarizatuta. Bertoko albistegien artean France 2 eta France 1 sinesgarrienak bezala ageri dira beraien begien aurrean.

Iparraldea eta Hegoaldea aipatzen hasita, esatea ere komeni da bi lurrealdeen artean sumatzen den etena. Lingüistikoa eta politikoaz gain, kulturala ere bada. Bidasoaz alde bateko zein besteko gazteek ez dakite “beste aldean” zer egiten edo emititzen den. Euskaraz egindako saioekin ere gauza bera gertatzen da. Hegoaldeko gazteen artean programa horiek duten audientzia hutsaren hurrengo bada, Iparraldean ez da kategoria horretara ere iristen.

### 6. taula: Gazteek komunikabideen aurrean dituzten jarrerak

| Eztabaiderako esaldia                        | Adostasun maila * |
|--|-------------------|
| <i>Komunikabideak boteretsuen esku daude</i> | %75               |
| <i>Komunikabideak manipulatuta daude</i>     | %73               |
| <i>Publizitateak engainatu egiten gaitu</i>  | %71               |
| <i>Komunikabideek egoki informatzen dute</i> | %51               |

\* “Oso ados” eta “nahiko ados” aldagaien batura.

Iturria: CIES, 2005

### 7. taula: Albistegien sinesgarritasuna \*

| Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafar Foru Komunitatea |    | Ipar Euskal Herria |    |
|---|----|--------------------|----|
| ETB2  | 61 | France 2           | 62 |
| ETB 1   | 47 | France 1           | 61 |
| T 5   | 45 | TF 1               | 50 |
| A 3   | 23 | M 6                | 30 |
| TVE 2   | 3  |                    |    |
| TVE 1   | -2 |                    |    |

\* Datua kenketa honen emaitza da: (Oso ona + ona) - (txarra+ oso txarra).

Iturria: CIES, 2005

Fikzioa edo entretenimendua aukeratu behar dutenean, gazteek ez dute zalantzariak: Euskal Herritik kanpoko produktuak aukeratzen dituzte, bai Iparraldean zein Hegoaldean. Hegoaldeko gazteek Spainian ekoitzitako modako serieak nahiago dituzte ETBk egindakoak baino. Iritzi-azterketa egin zen garaian AEBetako serieak ziren nagusi (*Los Simpsons* eta *CSI*).

Generoen artean sumatzen diren aldeak oso interesgarriak dira. Neskak eta mutilak oso desberdinak dira horretan ere. Kazeta irakurtzerakoan, adibidez, nesken gustuak orekatuagoak dira mutilenak baino. Sailen artean ez dira hainbesteko aldeak sumatzen. Mutilen artean, berriz, kirolen nagusitasuna erabatekoa da. Politika beraien gustuen artean azkenetakoa bada ere, nabarmena da neskei gehiago interesatzen zaiela politika mutilei baino.

#### **8. taula: Sailik gustukoena gazteen artean**

| Saila                             | Neskak | Mutilak |
|-----------------------------------|--------|---------|
| Kirolak                           | %34    | %66     |
| TB/Irratiari buruzko programazioa | %34    | %27     |
| Kultura, agenda                   | %32    | %18     |
| Gizartea                          | %28    | %18     |
| Tokiko informazioa                | %21    | %16     |
| Iritzia                           | %14    | %15     |
| Politika                          | %13    | %6      |

Iturria: CIES, 2005

Irratiaren kasuan programa musikalak jaun eta jabe dira. Genero biei gustatzen zaie, bereziki neskei.

#### **9. taula: Irratsaiorik gustukoena gazteen artean**

| Irratsaio-mota            | Neskak | Mutilak |
|---------------------------|--------|---------|
| Musikalak                 | %89    | %62     |
| Kirolak                   | %4     | %30     |
| Albistegiak               | %13    | %19     |
| Lehiaketak                | %16    | %9      |
| Tertuliak eta eztabaideak | %10    | %2      |

Iturria: CIES, 2005

TBren aurrean ere, neska eta mutilen gustuak desberdinak dira. Hemen ere alde nabarmenak daude hainbat arlotan: musikaletan eta kiroletan, batik bat.

#### **10. taula: Telebistako saiorik gustukoena gazteen artean**

| Programa mota            | Neskak | Mutilak |
|--------------------------|--------|---------|
| Serieak                  | %79    | %55     |
| Filmak                   | %68    | %74     |
| Musikalak                | %52    | %28     |
| Humorea                  | %45    | %53     |
| Entretenimendua          | %29    | %23     |
| Kirolak                  | %21    | %59     |
| Albistegiak              | %16    | %21     |
| Lehiaketak               | %17    | %15     |
| Reality Show             | %16    | %4      |
| Kulturalak, dokumentalak | %15    | %18     |

Iturria: CIES, 2005

Gorago aipatu dugun legez, Internet ohiko tresna bilakatu da gazteentzat. Inkestatuen %81ek onartzan dute sareko edukiak gustukoak dituztela. Horrezaz gain, Interneteak *-messenger* programa bidez- lagunekin harremanetan jartzeko aukera ematen die, baita etxerako lanak egiteko parada ere.

#### 11. taula: Interneten erabilera gazteen artean

| Jarduera-mota                         | Maila |
|---------------------------------------|-------|
| Eskolakolanak egiteko                 | %92   |
| Lagunekin hitz egiteko                | %88   |
| Informazioa jasotzeko                 | %76   |
| Musika, filmak programak,... jaisteko | %73   |
| Entretenimendu gisara                 | %64   |

Iturria: CIES, 2005

### 1.6. Ondorioak

1. Adituekin izandako sakoneko elkarriketek argi eta garbi utzi dute Euskal Herriko ikastetxeek ez dutela Hezikomunikazioa modu sistematiko eta arautuan kontuan hartu. Eskola-curriculumean duen presentzia hutsaren hurrengo da. Iritzi-azterketan jasotako emaitzek garbiro azaldu dute komunikabideen lana ez dela hizpide ikasgeletan: ez aipagai, ez eztabaidagai. Komunikabideak eskolan ez dira existitzen. Inguruko herrietan sumatzen den joera antzekoa bada ere, egoera oso bestelakoa da Erresuma Batuan, Kanadan eta Australian.

2. Adituen aburuz, Euskal Herriko eskola-mundua liluramendu teknologikopean bizi da, Informatikara begira miretsita. Teknologia berriak *nola* erabiltzen diren hainbat ahalegin egiten badira ere, esfortzu berberak ez dira egiten ikasleei tresna berri horiek *zertarako* behar diren azaltzeko. Unesco erakundeak Hezikomunikazioaren inguruau emandako irizpideak ez dira jarraitzen. Indarrean dugun eredua teknologikoa da; ez kritikoa: komunikabide-*etarako* irakasten da; ez komunikabideen *bitartez*.

3. Hezkuntzako agintarien axolagabekeria horren ondorioz, irakasleriak ez du behar besteko formaziorik. Ez du materia hau irakasteko behar diren tresnarik menperatzen. Azken urteotan, egin diren ekimenak maisu-maistrek eta gurasoek, beren aldetik eta modu autodidaktakoan, burutu dituzten iniziatiiba pertsonalen ondorioak izan dira.

4. Euskal gazteek duten ekipamendu teknologikoa oso altua da. Beraien kontsumo mediatikoa aldatzen ari da. Gero eta gehiago banan-banako jarduera bilakatzen ari da (%24k dute TBko aparailua beren gelan). Ikerketan oso garbi gelditu da gazteek ikus-entzunezko kulturaren alde egiten dutela apustu, idatzizkoaren gainetik. Prentsa apena irakurtzen dute. Are gutxiago testu-liburuak ez diren argitalpenak.

Horren aldean, gazteen %56 astean hiru egun edo gehiagotan sartzen dira sarean. Ez dugu ahaztu behar heren batek baduela Interneterako sarbide pertsonala eta laurdenak baduela ordenagailu pertsonala. Euskal Herriko nerabeek teknologia berriak ezagutzen dituzte. Maite dituzte. Erreminta interesgarri eta baliagarriak direla uste dute. Euren bizimodua ere aldatzen ari da.

5. Ekipamendu teknologikoan egin den hobekuntza kuantitatiboa izan da. Horrek ez du ekarri, ordea, hobekuntza kualitatiborik Ikus-entzunezko alfabetizazioan. Eztabaidea-taldeetan jasotako hainbat erantzunek frogatu dute, zenbait arlotan, euskal nerabeak mediatikoki analfabetoak direla: irudia eta errealtitatea sarritan identifikatzen dituztelako, zenbait mezu deskodetzeko zailtasun nabarmenak dituztelako eta, askotan, mezu informatiboaren polisemiaz ahazten direlako.

6. Aldi berean, gazte hauek jarrera kritikoa agertu dute komunikabideen aurrean: %73k uste dute masa-hedabideak “manipulatuta” daudela. Postura hori berresten da TB-kateetako albistegiak epaitzerakoan. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafar Foru Komunitateko gazteen artean, ETBko albistegiek sinesgarritasun handiagoa daukate gainerako kateenek baino. Ez da gauza bera gertatzen Iparraldean, non Parisko kateek sinesgarritasun handia daukaten. Gazteek komunikabideekiko duten jarrera kritiko horrek esplikatzen du zergatik hedabideek duten horren eragin apala gaztetxo hauen iritziak osatzerako orduan. Politika, sexu, droga eta inmigrazio kontuetan etxeko giroak eta lagun-koadrilak eragin askoz handiagoa dute eskola-giroak eta komunikabideek baino.


7. Teknologia berrien ezarpenak erronka berriak planteatzen ditu. Hezikomunikazioa eskola-curriculumean sartzea da horietako bat. Eztabaidea liteke hori nola egin behar den: nahitaezko materia izan behar ote den edo zehar lerrokoa. Haatik, ikerketa honetan konsultatu ditugun iturri guztiak bat etorri dira esatean orain arte egindako ekimenak baino askoz gehiago egin behar direla aurrerantzean. Informazioaren gizarteak gaitasun kritikoa duten subjektuak heztea exijitzen du, problema konplexu eta berriak konpontzeko gai diren pertsonak, sormenaren leihokoak konplexurik gabe eta parez pare irekitzeko prest dauden gizakiak. Alde horretatik, hezikomunikazioa, zalantzarak gabe, oso tresna eraginkorra da.

## **1.7. Eranskina: zenbait datu interesgarri**

Euskal Herriko 1.882 neska-mutikoei egindako inkestatik hainbat datu dira oso interesgarriak. Datuotan berretsi egiten dira beste azterlan soziologikoetan jasotako emaitzak. Hala ere, zenbait azpimarra egin ditugu. Norberak aukera dezala lapitzaren kolorea: gorria ala berdea.

Esaterako, helduen artean gertatzen den legez, nerabeen artean ere nabaria da euskararen ezagutza eta erabilera mailen artean sumatzen den etena. Etxean gehiago egiten da euskaraz, lagun-koadrilan baino.

1. Grafikoa: Euskararen ezagutza-maila.  
Euskararen erabilera etxean eta lagun giroan %



Iturria: CIES 2005

Egileta: Ikerketa taldea

Bestalde, prentsaren kontsumoari dagokionez, beste horrenbeste gertatzen da. Kontuan izan behar dugu, neska-mutil hauek ez dutela kazeta erosten normalean, etxean dagoena irakurtzen baitute. Datuok 2005ekoak badira ere, pentsa daiteke gauzak ez direla gehiegi aldatu ordutik hona. Salbuespen bakarra izan daiteke *Diario de Noticias* egunkaria. Orain Nafarroan ez ezik Araban eta Gipuzkoan ere badago. Eta hori orduan ez zen gertatzen. Hona datuok:

**12. taula: Prentsaren kontsumoa Hego Euskal Herrian  
Astean behin baino gehiagotan irakurtzen dutenen kopurua: %72**

| Egunkaria                | Ehunekoak |
|--------------------------|-----------|
| El Correo                | %29       |
| Diario Vasco             | %17       |
| Diario de Navarra        | %12       |
| Gara                     | %8        |
| Marca                    | %6        |
| Berria                   | %5        |
| Deia                     | %3        |
| Beste batzuk             | %16       |
| Ez daki / Ez du erantzun | %3        |

Iturria: CIES, 2005

**13. taula: Prentsaren kontsumoa Ipar Euskal Herrian  
Astean behin baino gehiagotan irakurtzen dutenen kopurua: %65**

| Egunkaria                 | Ehunekoak |
|---------------------------|-----------|
| Sud Ouest                 | %59       |
| Le Figaro                 | %6        |
| L'Equipe                  | %5        |
| La Semaine du Pay Basque  | %3        |
| Berria                    | %3        |
| Gara                      | %2        |
| Le Journal du Pays Basque | %2        |
| Le Monde                  | %2        |
| Beste batzuk              | %11       |
| Ez daki / Ez du erantzun  | %8        |

Iturria: CIES, 2005

Irratiaren kontsumoari dagokionez, nabarmena oso da neska-mutilek musikarekiko duten zaletasuna. Ipar zein Hego Euskal Herrian *irrati-formula* da nagusi. Telebistari dagokionez, eta aurreko artikuluan aipatu dugun bezala, Euskal Herritik at ekoitzitako saioak dira nagusi, bai Ipar zein Hego Euskal Herrian. Jarraian agertzen diren datuok 2005ekoak diren arren, oraingoan gauzak ez direla gehiegi aldatu pentsa daiteke, Sofres eta audientzia neurtzen duten beste etxeek egunero baiezatzen dutenez.

**14. taula: Irratirik gustukoena**

| Hego Euskal Herrian | Ipar Euskal Herria |
|---------------------|--------------------|
| Cadena 40           | NRJ                |
| Euskadi Gaztea      | Euskadi Gaztea     |
| Kiss FM             | Euskal irratiaik   |
| Ser Irratia         |                    |

Iturria: CIES, 2005


**15. taula: TBko saiorik gustukoena**

| Hego Euskal Herrian           | Ipar Euskal Herria |
|-------------------------------|--------------------|
| <i>Los Serrano</i>            | Charmed            |
| <i>Aquí no hay quien viva</i> | Plus belle la vie  |
| <i>Vaya Semanita</i>          | Ma famile d'abord  |
| <i>Los Simpsons</i>           |                    |
| <i>CSI</i>                    |                    |

Iturria: CIES, 2005

Euskal nerabeek komunikabideekiko eta bereziki TBrekiko duten maitasun-gorrotozko harreman berezi horren adierazle da hurrengo grafikoa. Beraien iritziz *Reality Show*-ak telebistatik desagertu beharko lirateke. Hala ere, ikusten dituzte.

2. Grafikoa: "Bizitza pribatuari buruzko saioek TBtik desagertu behar dute". Adostasun maila %




Iturria: CIES 2005

Egileta: Ikerketa taldea

Amaitzeko, beste datu-andana argigarri bat. Ikerketa taldeak jakin nahi zuen, eskolako liburuez gain, euskal nerabeek zenbat liburu irakurtzen duten. Bada, begira, beraiek emandako datuen arabera, urtean zortzi bat liburu irakurtzen omen dute. Zehatz-mehatz hauek dira batez besteko datuak: gazteleraez 4,8 liburu urtean, euskaraz 1,5, frantsesez 1,5 eta ingelesez 0,4. Datu orokorrak dira, Euskal Herri osokoak. Generoen artean nobela da jaun eta jabe (%74k gustukoena bezala aukeratu zuten). Gerora azaltzen dira ipuina (%47k hautatua) eta komikia (%40k).

3. Grafikoa: Borondatzeko irakurketak  
(Urtean gutxienik liburu bat)



Iturria: CIES 2005

Egileta: Ikerketa taldea

Hemen ere, differentzia nabarmenak daude Ipar eta Hego Euskal Herriko nerabeen artean.

## 2. *Telebista: gozoak oki*

Larunbatean, bazkari berezia zutela eta, sukaldetzen laguntzeko esan zioten hamabi urteko semeari. Atseginez hartu zuen Enekok gonbite-agindua eta eskatu, eskatu zuen bazkalburuko flana bere esku uztea.

“Ama, non dago azukrea?”, galdeztu zuen. “Hortxe duzu, laztana, ontzitxoan”.

Lau koilarakada ordez, hamabi bota zituen erretilura. Dena ondo irabiatzen hasi eta “postreak dultzea behar dik”, esan zion harroxko bere buruari.

Larunbata heldu zen. Postrea hain zen postre, eta dultze, ezen ezin izan gozo…

Kale!

Orain, goazen sukaldetik egongelara, edo logelara.

Zain dugu telebista.

### 2.1. *Telebista, azukre-ontzian*

Inguru hurbila eta mundu zabala ezagutzeko, tresna garrantzitsua da gizarte-komunikazioa deitua. Telebista, irratia, egunkariak, Internet... masakomunikazioaren euskarri material horiek dira gizaki modernoarentzat munduan gertatzen denaren narratzailerik behinenak. Horretaz gain, gurearen moduko gizarte aurreratuetan, aisia betetzeko parada eskaintzen dute tresna horiek guztiekin. Eskola-umeentzat ez da arrotza hori guztia.

Gaur egun, eskolak beste sozializatzen du herritarra gizarte-komunikazioak. Telebistari dagokionez, gazteak bizi du halako sinestesia maltzur moduko bat, zeinaren bidez irudiarekin liluraturik erreala eta dramatizazioa nahasten baititu. Arlo horretan, eskola-gaztea ez dago ongi alfabetaturik.

Ahula da komunikazioaren gaineiko heziketa gure gazteen artean. Ikuspuntu horretatik begiratuta, ondo legoke hezkuntza-sistema arautuan txertatzea ikasketa bereziak komunikazioaren mundua ulergarriagoa izan dakion gazteari, liluretatik harago.

Ez da debekua proposatzen duguna, hots: *gizarte-komunikazioa arriskutsua da, babes gaitezen!* Ez, ez da estilo horretakoa gure deia.

Formazioa eta sormena eskatzen ditugu.

Gizarte-komunikazioa saihestezina da gaur mundu industrializatu eta garatuan. Bada, ikas dezagun eta treba gaitezen hedabide eta eduki berriean. Telebistaren *alfabetoa* ezagutu behar dugu, bere erretorika eta argudio-sistema.

Etxeko sukaldean ere hitz egin behar da telebistaz, eta saihestu flana okitzea azukrea batere ardura barik erabiltzeagatik.

## **2.2. Ikerketaren bi emaitza, giltzarri**

Gaztekin ordu batzuk eman ondoren inferitu ahal izan dugunez, egokia da esatea ezen Hegoaldeko gaztea Espainiako telebistei begira bizi dela; eta, Iparraldeko Frantziakoei. Euskal Herriko gazteak ez daude Euskal Herriko telebistari begira, kanpokoari baizik. Ildo horretatik ikusten dugu telebista-kontsumoa erdaraz gauzatzen dela hein handi batean, bai Iparraldean bai Hegoaldean ere. Era berean, argia da ezen Iparraldeak Hegoaldeko telebista ezagutzen ez duen modu berean, Hegoaldeak ez duela Iparraldeko ezagutzen; Euskal Herriak egitura administratibo komunik ez edukitzeak zaitzen du, seguru asko, Bidasoaz alde bietarako telebista-eskaintza komuna ahalbidetzea.

Eztabaidea-taldeetan maiz entzun dugunez, Euskal Herriko nerabeek eta gazteek modu kritikoz ikusten eta kontsumitzen dute hedabideetako informazioa. Esan dutenez, irakurketa kritikoaren diskurtsoa ezaguna zaie. Alabaina, baieztapen horrek ñabardura askoren beharra du. Talde-eztabaideetan ikusi dugunez, ikus-entzunezkoen narrazio-teknikak ez dira oso ezagunak gazteen artean eta gazte horiek benetako zailtasunak dituzte dramatizazio informatiboaren ardatzak deskodifikatzeko: sarritan nahasten dute erreala eta sorkuntza.

Semaforo gorria pitzu da... flana arriskuan da.

## **2.3. Telebistaren gozoa: lilura eta ametsa**

Euskal Herrian eskolatutako gazteentzat ez dira batere arrotzak teknologia komunikatiboak: argazki-kamerak, ordenagailuak, bideo-jolasen kontsolak ohikoak dira. Eskola-gazteetatik herenak *bere* ordenagailua du. Laurdenak telebista propioa du, eta Interneterako lotura. DVDAk ohikoak dira, bideo-irakurleak eta grabagailuak bezala. Askotariko eduki kulturalak kontsumitzeko erraztasun teknologiko ugariren jabe dira gure gazteak.

Hedabideei buruz zuzen galdetuta erantzun digutenez, telebista da gehien kontsumitzen duten hedabidea. Gazteek eurek diotenez, hamar gaztetik ia zortzi dago telebistari begira asteko egun guzti guzietan.

Telebistaren ondoren, irratia da kontsumituena. Gazteen artean, hamarretik lauk egunero entzuten du irratia. Konpainiarako darabilte, alegia, beste zerbait egiten dabiltzan bitartean, fondoko laguntasun gisa.

Kontsumo-azturei gagozkiela, hirugarren koska batean dago Internet: herenetik gora sartzen da sarean asteko ia egun guztieta.

Hedabide tradizionalagoak kontuan hartuz gero, ikusten da paperezko prentsa idatzia oso aparte gelditu dela gazteen ohiko kontsumoa, oraingo gazteak ez du papera gustuko. Oro har, gazteak ez du kontsumo orekaturik prentsa idatziari gagozkiolarik. Hamarretik bik-edo irakurtzen du egunero berripapera. Heren batek aitortzen du astean behin-edo eskaintzen diola tarte bat zuriaren gaineko letra idatziari. Beste heren batek aitortzen du ezen behin ere ez dela hurbiltzen paperezko hedabide idatzietara<sup>20</sup>.

### ***2.3.1. Irudia, ahozkotasunaren gainetik***

Ikus-entzunezko diskursoaren kulturan txertatutako gaztea da gurea. Irudiaren lilura bizi du. Eduki sinbolikoena eroale gisa, letra idatzia ez da batere lehenetsitako tresna.

Ikus-entzunezkoa da hobetsia, halere: begia belarriaren gainetik. Esan liteke ezen gaztea irudiari begira bizi dela. Gure gaztearentzat irudiari lotuta dago munduaren errepresentazioa. Eskolatik at, gazteak ez dio apena aukerarik uzten hitz esan edo idatziaren bidezko errepresentazioari. Nahikoa bigarren mailakoa da munduaren ahozko errepresentazioa. Musikari lotuta bizi du gazteak ahozkotasun hori, bizitzekotan.

Bestalde, inkestan eta eztabaidea-taldeetan ikusi ahal izan dugunez, Euskal Herriko gazteek ez diote arreta handirik jartzen albisteari, notiziari. Telebista egunero kontsumitu arren, batez ere, fikzioa kontsumitzeko erabiltzen dute irudia. Eta aisia betetzeko tresna moduan ulertzten dute telebista.

Euskal Herriko gaztea teknologiaren liluran eta irudi antropomorfoaren nahiz alegiazkoaren kontsumoa ohitura dagoen herritarra da. Tarte txikia uzten diona kulturaren transmisio-bide tradizionalari.

Hedabideen kontsumo orokorrari gagozkiolarik, gure gaztea ez da hitzetan sozializatutakoa, irudian eta keinuan baizik.

### ***2.4. Telebistaren katea: deskodifikazio traketsa***

Ikerketa-talde honek eztabaidea-taldeetan ikusi ahal izan duenez, irudiaren lilura bizi duten arren, edo agian lilura hori bizi dutelako, gazteak ez daude behar bezala jantzita irudiaren deskodifikazio osotua praktikatzeko.

Kontsumoa eta prestakuntza ez dato bat arlo horretan. Gazteek eurek agerian utzi dutenez, telebista-produktuen irakurketa kritikoa praktikatzeko, eskolak ez du

<sup>20</sup> Datuak gogoratzeko, ikus aurreko kapituluan, lehen taula.

eredu argirik ezartzen batetik, eta, bestetik, gurasoak ez daude nahikoa jantzita arlo horretan.

Galduta daude, hala daudela jakin barik. Koilara eskuan, azukrea bota eta bota aritzen dira.

Euskal Herriko nerabeek eta gazteek aitortzen dutenez, entretenimendu-modu bat da batez ere telebista. Adierazten dutenez, telebistara hurbiltzen direnean, hurbiltzen dira aisia betetzeko aukera moduan. Denbora-pasarako erabiltzen dute nagusiki gure gazteek telebista. Eta horixe bera adierazten dute inkestatu direnen arteko hamarretik zortzi pasatxok (% 84).

Nerabeek eta gazteek aitortzen dutenez, badakite, jakin, ezen ikus-entzunezko hedabide handienak boteretsuen eta ahaltsuen eskuetan daudela, eta ez dituztela sarritan giza balioak sustatzen. Hala ere, hedabide horren kontsumo-maila esanguratsua praktikatzen dute.

Bestela esanda: ez dute saihesten kritikatzen duten hura.

Gazteen artean, sexuak eta adinak ez dute estatistikoki kontuan hartzeko moduko desberdintasunik ezartzen telebistaren aurrean jartzeko orduan: ordu-kopuruari erreparatuz gero, berdin antzera ikusten dute telebista neskek eta mutilek, berdintsu hamalau urtekoek nahiz hamazortzikoe. Oro har, gure nerabeek eta gazteek ordu bat edo bi jartzen dira telebistari begira astegunez (aisiaren zatirik handiena), eta hirutik gora asteburuez (aisiaren tarte esanguratsu bat).

Aldiz, argi markatzen du gizarte-estatusak desberdintasunik kontsumoan: gehiago ikusten dute telebista estatus apalekoek. Aipagarria da, oso, kontsumo-lubakia: % 12 gehiago ikusten du telebista estatus baxukoak, altukoak baino.

Gehiago kontsumitzen da telebista hiri handietan herri txikietan baino: kontsumo-lubakia % 13ra heltzen da hirien alde.

Telebistak harrapatu egiten dituela aitortzen dute inkestuek, mendekotasuna eragiten duela diote, hots, ikusten hasita, kontsumoa eteteko zailtasuna dute. Euskal Herriko nerabeen artean, hamarretik zazpik (% 67) aitortzen du hori.

Ez dakite telebista itzaltzen.

#### **2.4.1. *Hegoaldeko gazteak, Spainiari eta erdarari begira***

##### *Modako serietan eredu espainola nagusi*

Hego Euskal Herriko gazteen eta nerabeen telebista-kontsumoa irekia da, gazteak ez du bakarrik kontsumitzen bere esparru hurbileko telebista, bere begiak irekitzen baititu zirkunkripzio administratibo zabalagoko eskaintzara. Inkestak erakutsi duenez, oro har, Hegoaldeko gazteak Espainiako telebista hartzen du begietan. Eta bistan du, batez ere, telebista pribatua.

Gogokoena telebistan, serieak dira gazteentzat. Bigarren leku batean daude filmak. Zazpigaren toki batean daude albistegiak. Aurretik dituzte albistegiek: umorea, musikalak, kirol emankizunak eta denbora-pasakoak.

Serieen kontsumoari gagozkiola, Espainiako bi kate pribaturi lotuta ikusi ditugu gazteak. Tele5 eta Antena3 dira kate horiek. Hor dute genero horren kontsumorik handiena Hego Euskal Herriko gazteek.

Non ikusten du filma gazteak? Bada, Tele5, Antena3 eta ETB2 kateetan. Kasu honetan, aipagarria da eremu hurbileko kate baten agerpena: erdaraz bizi den EAEko kate publikoa. Edozelan ere, filmak gaztelaniaz kontsumitzen dira, serieak bezala.

Hurbileko katera jotzen du Hegoaletako gazteak umorea kontsumitzeko, ETB2 erdarazko kate publikora. Atzean geratzen dira gainerako enpresek eskaintzen dituzten programak. Musikaren bila, gazteak, batez ere, kate bi hautatzen ditu: pribatua bata (Canal+) eta publikoa bestea (TVE1).

Kirolerako, Hego Euskal Herriko gazteek eta nerabeek hurbileko telebistak nahi dituzte: ETB1 eta ETB2. Kateen lehentasunak ezartzerakoan, Canal+ kate pribatua agertzen da hirugarren lekuan.

Denbora-pasa tankerako programetarako, gure gazteek Espainiako kate pribatuak hobesten dituzte: Antena3 eta Tele5.

Nolabait laburtzearren, gure gazteak eta nerabeak kanpoko produkzioari begira igarotzen ditu bere telebista-ordurik gehienak. Dela Espainiako produkzioa, dela Hollywoodeko, pantailak erakusten dituen protagonistak, eszenak eta argudioak ez dira gure artean sortuak.

#### *Genero informatiboan, burbiltasuna eta publikotasuna da hobetsia*

Eta informazioa? Bere kontsumo urrian, bada, hiru kate dira hobetsienak, ordena honetan: ETB2, Antena3 eta Tele5. ETB1, euskaraz diharduen publiko bakarra, bosgarren lekuan agertzen da, TVE1en atzetik, eta ETB2tik hogeい puntu beherago.

#### **16. taula: Katea eta kontsumoa hegoaldean**

|         |      |
|---------|------|
| ETB2    | % 29 |
| Antena3 | % 26 |
| Tele5   | % 24 |
| TVE1    | % 17 |
| ETB1    | % 10 |

Datuen iturria: CIES.

*Profil linguistikoak kontuan hartuta, non ikusten dituzte albistek gure gazteek?*

Egin ditzagun itaun bi. Bat, gazte euskaldunek, euskaraz ikasiak eta alfabetatuak direnek, non ikusten dituzte albisteak? Eta, bi: zein kate hobesten dute erdaldunek, euskaraz ikasi ez eta jakin ere ez dakitenek?

**17. taula: Albistegiak, profil linguistikoaten arabera**

| <i>Euskaldun alfabetatuak</i> | <i>Erdaldun butsak</i> |
|-------------------------------|------------------------|
| ETB2 % 36                     | Antena3 % 41           |
| Tele5 % 22                    | TVE1 % 27              |
| Antena3 % 20                  | Tele5 % 25             |
| ETB1 % 16                     | ETB2 % 10              |
| TVE1 % 12                     | ETB1 % 01              |

Datuen iturria: CIES.

Hego Euskal Herriko gazteak erdaraz kontsumitzen du informazio orokorra. Sosai linguistikoa kontuan hartuta, gazte euskaldunarentzat erreferentzialagoak dira ETB2, Tele5 eta Antena3; ETB1 baino. Oro har, ETB2 hautatzen du euskaldun alfabetatuak albistegia ikusteko.

Aldiz, erdaldunentzat, erdaraz jardun arren, ETB2 ez da informazioa jasotzeko telebistarik ikusiena. Leku hori Antena3k bereganatzen du. ETB2ren aurretik kokatu dira kontsumo-azturaren Antena3z gain, Tele5 eta TVE1. Euskal Herriko erdaldunek ETB1 ez dute ia piztu ere egiten informazioa jasotzeko.

Euskaldunek, beraz, gurago dute bertoko katea, baina erdaraz.

Erdaldunek, aldiz, nahiago espainiarra.

*Euskararen sinesgarritasuna*

Euskarazko kate bakarraren lan informatiboa baloratzean, Euskal Herriko gazte euskaldun alfabetatuek diotenez, ETB1ek *ondo edo oso ondo* informatzen du, inkestatuatik hamarretik seiren ustez (% 61). ETB1ek *gaizki edo oso gaizki* informatzen du hamar inkestatuuen arteko baten ustez (% 14).

**18. taula: Euskal telebistak informatzen du...**

|       | <i>oso ondo edo ondo</i> | <i>oso txarto edo txarto</i> |
|-------|--------------------------|------------------------------|
| ETB1  | %61                      | %14                          |
| ETB 2 | %73                      | %12                          |

Iker-taldeak landutako datuak.

Gasteizko Legebiltzarraren kontrolpeko kate publiko biak erkatuz gero, nabarmen ikusten da gazte euskaldunek hobetsi egiten dutela erdarazko katea: gehiago kontsumitzen du eta hobeagoa iruditzen zaio.

### **2.4.2. Iparraldeak Frantzia ipar**

#### *Modako serieak iparraldean*

Frantziari eta frantses hizkuntzari begira bizi da Iparraldeko gaztea, telebista kontsumoari gagozkiola. Telebista-ekoizpenean, erakarpen handia dute kate handiek. Gainera, Ipar Euskal Herriak ez du apena telebista-produkzio propiorik. Iparraldeko gazteen gustuak eta Hegoaldekoenak antzekoak dira: serieak eta filmak maite dituzte Bidasoaz alde bietara.

Serieak ikusteko, M6 kate pribatua da hautatuena, modu argian ikusi dugu hori inkestan. Eta bigarren lekuan agertzen da TF1. Gainerako kate frantsesak oso atzetik datozi. Euskal Herriko bertoko serieen aipamenik ez dago.

Filmen kontsumoa marraztean, panorama irekiagoa da. Iparraldeko gazteek lau kate hautatu dituzte: katerik hobetsiena TF1 da, bigarren koska batean M6 agertzen da, eta hirugarren batean Canal+ eta TF2.

Umorea eta musika, M6 katean bilatzen dituzte Ipar Euskal Herriko gazteek.

Kirol-emanaldietarako, esparrua zabala da, ordena honetan hobetsi dira kateak: koska batean, TF1, France 2, eta France 3; bigarren koska batean, Canal+. Eta azken horretatik hurbil, Hegoaldeko ETB1.

Denbora-pasa tankerako programetarako, gure gazteek Frantziako kate bi hobesten dituzte: M6 eta TF1. Kultura eta dokumentalak ikusteko, Arte katera jotzen dute. Lehiaketetarako, TF1era.

Hegoaldeko kasuan gertatzen den modu bertsuan, Iparraldeko gazteak kanpoko produkzioari begira igarotzen ditu bere telebista-ordurik gehienak. Dela Frantziako produkzioa, dela Hollywoodekoa, pantailak erakusten dituen protagonistak, eszenak eta argudioak ez dira berton sortuak.

#### *Genero informatiboa, Frantziako bigarren katean sinesgarriago*

Informazio-kontsumoa hiru kateri dago lotuta batez ere. Lehen koska argi batean, TF1 katea jarri dute. Bigarren batean, lehenengotik urrun eta euren artean hurbil, France2 eta France 3 hautatu dituzte. M6 eta ETB1 atzetik datozi.

#### **19. taula: Katea eta kontsumoa iparraldean**

|         |      |
|---------|------|
| TF1     | % 34 |
| France2 | % 18 |
| France3 | % 16 |
| M6      | % 12 |
| ETB1    | % 06 |

Datuen iturria: CIES.

Gazteei galdetuz gero informazioaren kalitateaz, informazioa jasotzeko orduan hobetsitako hiru kateen artean, France 2 da sinesgarritasunik handiena omen duena. Atzetik beste bi daude, ordena honetan: France 3 eta TF1.

Ikusten denez, bada hor ñabardura paradoxiko bat: ikusiena, TF1 da, baina ez da sinesgarriena; sinisgarriena France 2 baita.

Gazteei galdetuz gero, France 2 kateak *ondo* edo *oso onto* informatzen du. Iritzi horren aldekoak dira inkestuetatik hamarretik zazpi (% 72). France 2k *gaizki* edo *oso gaizki* informatzen du hamar inkestatuene arteko bakar baten ustez (% 10).

Hegoaldean ETB2k duen lekua hartzen du Iparraldean France 2k, informazioaren zuzentasunari gagozkiola.

#### *Telebistan, erreferentzialtasuna: atzerrian*

Azpimarratu nahi dugu ezen gaztea kanpoko produktuez elikatzen duela bere burua telebistari begira jartzen denean. Kanpokoarekin alderatuta, ekoizpen propioa eta autozentratua txikiak izanik gure artean, kontsumoa bera ere oso da urria.

Era berean, erreferentzia linguistikoari kasu eginez gero, azpimarragarria da erdara dela nagusi gazteen kontsumoa.

Erdara da nagusi gazte erdaldunen kasuan, eta erdara bera da nagusi euskaldunen kasuan.

## **2.5. *Telebista: kontsumo kritikoaren bila***

Modu sakon eta berezituan aztertu dugu gazteen eta telebistako informazioaren arteko harremana. Inkestak eman dituen datuez gain, arlo honetan aurrera egiteko beharrezkoa izan zaigu eztabaidea-taldeen teknika.

Oro har, jarrera nagusi bi bereiz litzke gazteen artean telebistako genero errealarri buruz hitz egiterakoan, bai albistegiak orokorrean hartuta, nahiz zehazki albiste jakinak kontuan hartuta. Alde batetik, argi dago gazteek begi kritikoz ikusten dituztela albistegiak hein handi batean; baina, bestaldetik, joera handia dute gazteek irudiekin liluratzeko eta hor kritikotasuna galtzeko.

Nabarmena da kontraesan hori. Edozelan ere, zentzu absolutuan, kritikoago agertzen dira gazteak telebistak gazteen gaiak erakusten dituenean, besteetan baino.

Gazteek ez dute arazorik esateko eta errepikatzeko ezen telebistetako albistegiak sarritan manipulatzen direla komunikazioz kanpoko arrazoiaik direla-eta (arra佐 edo interes politikoak tarteko, adibidez). Baina, handia da gazteek irudiari aitortzen dioten errealtasunaren balizko egiatasuna, handiegia agian.

Oro har, hitz esana eta idatzia erraz manipulatu daitekeela aitortzen dute; aldiz, irudia zuzenagoa dela aldarrikatzen dute, eta, hartara, manipulatzeko gaitza dela

diote. Ikuspuntu horretatik, badirudi irudiaren irakurketan gazteak klabe interpretatzale kritikoen faltan daudela.

Gazteek, adineko askok bezala, sinestesia moduko bat bizi dute irudiaren aurrean, izan hau genero errealekoa nahiz fikziozkoa. Oro har, sinestesiak sentsazioen nahasmenaz eta bateraketaz hitz egiten digu. Irudiarekin, gazteak halako sinestesia moduko bat bizi du, zeren telebistak eskainitako irudiak *zentzu naturala eta antropomorfoa* duen heinean, gaztearentzat irudi hori *ezin da manipulatu*; gazteak dioenez: *ikusten badut, hor dagoelako da, zuzena da lekukotasuna, beraz*.

Koadroan jartzeak, fokatzeak, sekuentziaren dramatikotasunak, kamara subjektiboaren efektua... ez dira lantresna narratzailetzat hartuak gazteen partetik, ez dituzte *ikusten*. Dena da erreala, diotenez. Ez dute horietan teknika narratzaileetan igorlearen eskua, eta igorlearen nahitakotasuna, ikusten.

Telebistan, fikzioak eta errealak kanala konpartitzen dute. Generoek, akzio-motek, gain-jario tematikoek, parrillaren kokapen sinkronikoa dute telebista-kate desberdinatan, eta kate berean diakronikoa. Telebistan fikzioa eta erreala berdin antzera komertzializatzen dira. Teknika narratzaile berak konpartitzeak zaildu egiten du fikzio dramatikoari eta errealaren islari dagokiena banatzea eta bereiztea.

Gazteentzat bada hausnarketarako mintzagaia hedabideen *objektibotasuna*. Diotenez, objektibotasuna da gertakariaren alderdi guztiak erakustea, gezurrik ez esatea eta informazioa eta iritzia ez nahastea. Horraino *ongi beltzen* dira, baina, hortik aurrera zehazten jarraitzeko, lantresnak falta dituzte. Entzuna eta ikasia dute objektibotasuna zer den. Teoria horren aplikazioan galtzen dira.

Gazteentzat, telebista da albiste-iturrikin erabiliena, kontsumorik handiena duena. Telebistako irudiak informazio asko eta erraza ematen omen du. Gazteek beren buruari galdeztzen diote, batuetan, zertarako erabili beste bide batzuk, *baldin eta telebistak dena delako gaia begien aurrera ekartzen badu, gertatu den unean ekarri ere*.

Telebistaren kritika egitean, gazteek batez ere diotena da gertakarian zentratzen dela telebista. Eta, normalean ez duela horren azpian dagoen arrazoia azaltzen, ez duela gertakariaren testuingurua argitzen. Iruzkin interesgarria da hori.

Beste hedabideetan, edo etxeen, edo lagunekin bilatu behar izaten dute telebistako informatiboetan faltan omen duten testuinguru azaltzaile hori. Edozelan ere, beste hedabideei eskaintzen dieten arreta zein den kontuan izanda, berrogeialdian jarri beharko litzatekeen baieztapena iruditzen zaigu azken hori. Zeren, gazteek eurek diotenez, *gauzak telebistan ikusten dira, prentsa marginala da eta irratia musika entzuteko da*, halaxe esan digute hitzez hitz eztabaidea-taldeetan.

Oso aukera argia dute gazteek. Kontraesan moduko bat bizi dute gazteek informazioaren kontsumoari gagozkiolarik. Badirudi diotela: telebistan gauzak ondo ikusten dira, baina arrazoiak ez dira erakusten; hala ere, bestelako bide alternatiboak konsultatu beharko genitzukeen arren, hedabide “osoagorik” ez dugu normalean kontsumitzen.

Arduratzen gaituena da susmatzen dugula gazteak ez dakiela telebista ikusten. Ildo horretatik interesgarria da ikustea nola aitortzen duten gazteek beraien eskolan oso gutxi bitz egiten dela telebistari buruz eta telebista ikusteko irizpide kritikoei buruz. Eztabaidea-taldeetan ikusi ahal izan dugunez, gazteei ikus-entzunezkoen narrazio-tekniken ikuspegia orokorra eta kritikoa falta ziae.

Eztabaidea-taldeetan telebistaren kritika sustatu nahi izan dugunean, izan da esan duenik ezen telebista *arinegia dela, eta gauzak ondo jakiteko prentsa idatziaren beharra dagoela*. Bainak hori dioenak esan du une bat lehenago prentsa oso dela marjinala bere kontsumoan...

Gazteek telebistari egozten dioten hutsunerik handiena da albisteetan gauzak oso gainetik azaltzen direla, sakondu gabe bezala ematen direla; aldiz, prentsan sakontzeko aukera bandiagoa ikusten dute. Bainak, gutxiengo bat da gazteen artean berripaperera egunerokotasun normalizatuan jotzen duena.

Egia da —diote gazteek— ezen kasu askotan telebista baliagarria dela mundu erreala ezagutzeko, baina *batzuetan kontatzen dizute zerbaite oso interesgarri moduan eta zuk ez duzu inondik ikusten non datzan horren interesgarritasuna*.

Bainak, ez dute informazio hori berrogeialdian ezartzen. Gazteek salbuespen gisa baino ez dute beste hedabideetara jotzen informazioa kontrastatzeko, telebistan jaso dutenaren alternatiba bilatzeko.

Hori egiten dutenean, sarritan Internet hartzen dute bide *alternatibotzat*. Interneten, bilatzaile nagusiei esker (*Google* eta estilo horretakoak) aurkitzen omen dute gazteek *beste* bertsio hori. Bilatzaile automatikoari galdetzen diote, eta erantzuna datorrenean *lebenengo* orrialdeak irakurtzen dituzte, *zeren bestea eta guzti guztiak irakurtzeak luze joko bailuke*.

Gazte gutxi batzuek, aldiz, orrialde jakinetara jotzen dute sareko informazio alternatiboa bilatzeko.

Argi dute gazteek eta nerabeek desberdintasun handiak daudela telebista batzuen eta besteen artean. Diotenez, *diferentzia handiak daude batzuetatik besteetara, eta batez ere zein gai hartzen den eskuartean kontuan izanda*.

Oso argi ez dakite nola egiten den hori, baina badakite gertakari beraren bertsio desberdinak badirela izan; eta zenbait kasutan kontrajarriak susmatzen dituzte bertsioak telebista-kate bat piztu edo beste bat piztu.

### 2.5.1. *Gazteekin, albisteak ikusten*

2004-2005 ikasturteko neguan, Hegaoaldeko zortzi ikastetxe bisitatu genituen. Bakoitzean eztabaidea-talde bat antolatu zen eta telebista-albiste jakin batzuk ikusteko eta komentatzeko aukera izan genuen haiekin.

Albiste berberek gidatu zituzten elkarritzak eta eztabaidak ikastetxe guztieta. Jakina denez, profil linguistikoari gagozkiolarik, ikasketa-eredu desberdinan ikasten dute Euskal Herrian gazteek. Albisteak bertsio bitan eman ditugu: euskal taldeetan ETB1en euskarazko bertsioa, erdal taldeetan ETB2ren bertsioa; aipatzeko da erdal talderen batean edo bestean euskal hiztunak ere bazirela, baina ez aparteko talde bat sortzeko beste.

Lan egiteko prozedura bikoitza izan da. Alde batetik lan idatzi bat eskatu zaie ikasleei albiste bakoitzari buruz, eta ondoren eztabaidara sartu gara idatzitakoak gogoan hartuta. Eztabaidaren baitan, beste urrats baten moduan, telebistetako albistegiei buruz hitz egin da, kate bakoitzaren politika informatiboa gogoan hartuta.

Ikusi duguna da:

1. Albiste bat emateak beste batentzako izan litekeen denbora eta espazioa jaten duela ez dute ikusten gazteek. Alegia, albistegiak hogeita hamar minutu baditu, programan sar litezkeen albisteak *mugatuak* direneko ideia ez dute batere argi.
2. Irudiak ezin duela gezurrik esan diote. Albistegietan praktika litekeen protagonista batzuen elipsia kaptatzeko gauza ez dira gehienetan; batez ere, ardura handirik ez dien gaietan.
3. Kamara fokatzeak duen indar komunikatiboa zen den ez dakite definitzen.
4. Gazteek oro har, eta zenbat eta koxkorrago izan modu nabarmenagoan, zaitasuna dute identifikatzeko gizarte-hierarkien eragina albistean eta albistegian. *Statu quo* delakoa kritikatzeko gaitasuna badutenean ere, *statu quo* hori nola marrazten den albistearen baitan ez dute argi adierazten.
5. Beraiek, gazteak direnean albisteetako protagonista, arreta handiagoa jartzen dute ikusten duten horretan. Kritikoagoak dira eta *albiste arruntetan* ikusten ez dituzten manipulazio-zantzuak errazago aurkitzen dituzte.

## 2.6. *Telebista: gozoak oki*

Flanarekin gertatu zitzaison moduan, gerta dakioko gazteari telebistarekin. Neurtu egin behar du kontsumoa, eta irizpide kritikoak eta hautatzaileak piztu, telebistaren jarioak bere baitan hartu eta irudiaren erabateko diabetera jaurti ez dezan nahi baldin badu.

Kontua ez da azukrerik gabe bizitzea, beti flakiak iota. Kontua da flanak, batez ere, *gozoa* behar duela izan. Eta ez hainbeste *dultzea* bakarrik. Eta horretarako neurria eta oreka dira beharrezko.

Euskal Herriko gazteak komunikazio-teknologia berrienetako aparatu ugariren jabe dira. Teknologia horiek eskura izateak ahalbidetzen die gure gazteei lehenago ez bezalako kontsumo-maila potentziala edukitzea kultura-industrien produktuen

artean. Eurek aitortzen dutenez, beharrezkoak dira teknologia horiek euren bizitzarako, eta euren azturak ere baldintzatuta daude aparatu horien erabilera dela eta.

Hala ere, komunikazio-teknologia horiek ez dute beraiekin ekarri garraiatzen dituzten eduki sinbolikoen deskodifikazio beregaina egiteko lantresna intelektualik.

Kexu gara gu geu. Baita haien ere, batzuetan. Artikuluan garatu den telebistaren kasu jakinean, Euskal Herriko gazteak egunero begiratzen dio kutxa magikoari, dela aisia betetzeko dela informazioaren jabe egiteko. Batez beste, gazteak 119 minuto eskaintzen dizkio telebistari egunero, eskolatik kanpo. Telebistak eskaintzen dituen ikus-entzunezko diskurtsoak deskodifikatzeko unean, albistegietan eskaintzen diren irudien lerro dramatikoa ezezaguna da gazterik gehienentzat. Ikus-entzunezkoen diskurtso narratiboaren tekniken jabe ez diren heinean, sinestesia maltzur moduko bat bizi dute gazteek irudia eta erreala nahasten dituztela behin eta berriz. Bestela esanda: *letra ezagutzen dute, ez metafora*.

Bestalde, kontsumo-aukerei gagozkielarik, Euskal Herrian dagoen fikziozko produktu autozentratuen basamortua nabarmena da. Spainiari, Frantziari eta Hollywoodi begira dago gure gaztea. Produktu jakin batzuk alde batera utzita, Euskal Herrian ekoitzitakoa salbuespenezkoa da gaztearen kontsumoa. Era berean, gazteei propio eskainitako telebista-produktuak euskaraz gutxi dira, eta eskaintza orokorrean barreiaturik ezin dute osatu masa kritikorik.

Eromen digitalaren garaiotan, ez al du inork pentsatu gazteentzako telebista-kate propiorik sortzea euskaraz?

Azpimarragarria egiten zaigu, era berean, Iparraldearen eta Hegoalderen artean dagoen ez-ezagutza: Iparraldeak ez du Hegora begiratzen, eta Hegoaldeak gauza bera Iparraldearekin.

Banaketa administratiboak telebista-lubaki argia ekarri du berarekin: oro har, gazteek ez dakite Bidasoaz bestaldeko telebistek zer eskaintzen duten (euskaraz izan, erdaraz izan).

### **2.6.1. Komunikazioa ikasi eta horretan trebatu**

Hezkuntza-sistemak ez ditu egokitzen bere ikasketa-programak teknologia horiek sortu duten egoera berrira. Zentro batzuetako lan pilotuak alde batera utzita, eskolarik gehienetan ez da komunikazio-teknologiek eskaintzen dituzten produktuen gaineko hausnarketa-bide kritikorik sortu. Eskolak trebatu egin du gaztea teknologiaren erabilpen manualean: gazteak ondo daki ordenagailua erabiltzen, sarean mugitzen, telebista pizten... baina eskolak ez du gauza bera egin edukien azterketaren mailan, ezta diskurtsoen analisian ere.

Telebistaren aurrean jartzen denean, gazteari irakurketa-parametro jantzia falta zaio, ikusten duenaren azterketa sakona eta balorazio zehatza egiteko. Eta falta zaio

eskolak eskaini ez diona ez duelako etxean ikasterik izan. Telebistak eskainitako edukien gaineko zelanbaiteko kontrola familiar praktikatzen den arren ikusentzunezkoen diskurtso-tekniken gaineko kontrola anekdotikoa da kasurik gehienetan; eta horrek lausotu egiten du ustez edukiei ezartzen zaiena.

Ikerketa-taldearen iritziz, ordua da medioen ikasketa eskolara eramateko. Eztabaida sustatu behar da hezkuntza-sistemaren baitan, medioen ikasketa zelan txertatu erabakitzeko.

Eskolan ez dago irakasgairik astean hamar edo hamabi orduko jarduna duenik. Eta Euskal Herriko gazteek denbora hori ematen dute telebistari begira astean. Desfase hori ez da konponduko telebista debekatuz, telebista irakurtzen erakutsiz baizik.

Koilarakadak neurtu eta zenbatu beharko ditu Enekok. Baino, prozesua erabat egokia eta zuzena izan dadin, etxean edo eskolan erabaki beharko da, era berean, zein edulkorante erabili kasu bakoitzean: azukre zuria, beltza, eztia edo...

Gozoak ez luke zertan okitu.



### 3. *Dakigunetik ez dakigunera, zubiak eraikitzen*

#### **Alfabetizazio berrien testuingurua eta norabidea**

##### **3.1. Sarrera**

Gaur egun, IKTBen garapena dela eta alfabetizazio berrien beharrizana sortu denean, irakasle askok irudiarekin sentitu ez duguna sentitzen dugu orain: ezjakin osoak garela. Bainaz ez da egia. Ez gara hutsetik abiatzen... edo ez genuke hori egin beharko. Irudiaren lengoiarekin zorretan gaudela ezin ukatu, horretan eskolak badu "gainditu beharreko irakasgaia". Bainaz tamalez askotan, ezjakin osoak sentitzen gara batez ere, tresneria eta programa piloa menperatzen ez dugulako. Izan ere, merkatuaren presioaz eta eraginez, lengoaia hauetan alfabetatua egotea arlo teknikora mugatzen dela sinestu dugu: ahalik eta programa gehien ezagutzera. Eta hau hala da, ikuspuntu teknizista hutsetik abiatuz gero. Ez, berriz, ikuspuntu kritiko bat irizpidetzat hartuta (ikus lehenengo kapituluua). Ondo da egoera ezezagunen aurrean gure ez jakintasunaz jabetzea eta ikastea, baina hori bezain importantea da hezkuntzaz eta alfabetatze-prozesuaz ditugun ezaguera eta eskamentua ez gutxiestea. Erronkarik haundiiena une honetan, hain zuzen, horixe da, zaharra eta berria nola uztartu asmatzen jakitea (benetako artea!) eta alfabetizazio berriak gauzatzeko beste alfabetizaziotik ikasi dugunaz baliatzen jakitea ere bai. Horregatik kapitulu honetan dakigunetik ez dakigunera zubiak eraikitzen saiatuko gara.

Zubiak direla eta heziketaren ikuspegitik interesgarria iruditu zaigu alfabetizazioaren ikuspuntu soziokulturala (Gee, 2005). Ikuspuntu honek hizkuntza idatziaren alfabetizazio prozesuak aztertu ditu, baina itzal honetan burutu diren ikerlanen ondorioak hagitz baliagarriak dira ere beste edozein lengoiaren alfabetizazio prozesua ulertzeko. Azterketa hauek zera azpimarratzen dute: alfabetatze-praktikatza jotzen duguna eta gainontzeko praktikak banaezinak direla, hau da: euren baitan elkarritzetak, interakzioak, baloreak eta sineskerak eramatzen dituzten praktika sozial orokorragoentzako parte dira. Beraz, praktika guztiak osatzen duten testuinguru sozio-historiko-kulturalarekin erabat elkar loturik agertzen zaizkigu.

Geek azaltzen duenez (2005: 56-57) ikuspuntu honen arabera "alfabetizazioaren mitoa, -ideia hau: alfabetizazioak ezinbestez gauza "onen" zerrenda luze bat ekartzen duela-, mito hutsa da, zeren eta, berez, baldintza historikotik eta praktika sozialetatik kanpo alfabetizazioak ez baitu eraginik, edo oso eskasa; eragina

testuinguru historiko eta kultural batean txertaturik dauden praktika sozialei zor zaie". Irakurtzea, idaztea, edo gure kasuan, Informazioaren eta Komunikazioaren lengoiaiaz aritzea, beraz, praktika horien osagaiak baino ez dira eta praktika sozial bakoitzean modu ezberdinez egongo dira kokaturik. Halaber, modu horrek baldintzatuko ditu alfabetizazioak ekarriko dituen trebetasunak. Heziketaren eragina bada, testuinguraren araberakoa izango da, eszenatoki soziokultural bakoitzak alfabetizazio mota bat sortzen du eta.

Gauzak horrela, testuingurua aztertzea eta berau, lortu nahi dugun alfabetizazio motara egokitzea alfabetizazio prozesuaren ardatza izango da: testuinguruaren ezaugarriak, hots, elkarritzetak, interkazioak, baloreak eta sineskerak egokiak dira sortu nahi dugun alfabetatze-eragina lortzeko? Hor dago koxka. Eta hau ez da argitzen programa bat erabiliz. Honek gogoetak, esperientziak eta sormena eskatzen ditu, irakaskuntzaz *dakigun* guztia eskatzen du *ez dakigunera* heldu ahal izateko: honetaz guztiaz mintzatuko gara kapituluaren hurrengo hiru ataletan.

Teknikarien ardura teknikarien esku. Haiekin egin beharko dugu lan. Eta beste espezialista batzuekin ere bai, irakasleok ez baikara ahalguztidunak. Mugak ditugu, normala denez. Zer da gurea orduan historia honetan? Hezkuntza prozesuak ezagutzen ditugunok (eta ez beste inork) egin dezakeguna: alfabetatze-praktika berriei zentzua nola eman asmatu, nola txertatu hezkuntza-proiektuetan, nola erabili berrikuntza pedagogioari laguntzeko, gure lana errazteko, aukerak zabaltzeko... Bide horretan jakina, lengoia berriak ezagutzen joango gara, baina beti gure proiektu pedagokoak aurrera eramateko lagungarriak direnean eta proiektuotan alfabetatze-praktikak sartzeko beharrezkoak direnak. Bostgarren atalean ("Eszenatoki sortzaileak irakasleentzat ere bai") lan honi ekiteko proposamen bat luzatuko dugu eta seigarrenean material lagungarri batzuen aipamena egingo dugu.

Baina lehenago lehenengo zubia: hitz batzuk teknologiaren eta alfabetizazioaren eraginaz eta paperaz, aipatu berri dugun gure eginkizun horretarako irizpideak eta norabidea aurkitzen lagunduko digutelakoan.

### **3.2. *Teknologia, alfabetizazioa eta gu geu***

Jose de la Tomasa "jondo" kantaria Barakaldon egon zen behin, bertan urtero antolatzen diren flamenko jardunaldietan. Hurrengo egunean berri labur bat agertu zen egunkarian kantariari buruz. Kazetariari bitxia eta argitaragarria iruditu zitzaion Jose beste batzuengandik bereizten duena: bere kanten letrak ez direla kopla zaharrak berak sortutakoak baizik eta kanten poemaz osaturik liburua argitaratua zuela. Bitxia eta harrigarria, batez ere, berriaren azken lerroetan esaten zitzaigunez, poemon egilea eskolagabea zela.

Baina beharbada harrigarriena geure izaera bera da: "mundua" aldatzeko asmotan teknologia ezberdinak sortzen ditugu, baina teknologia horiek mundua ez ezik

geure burua ere aldatzen dute. Edo hobe esanda: guk geuk aldatzen dugu geure burua antolatzen ditugun praktika sozialetan teknologia horiek erabiliz (honen kontzientziarik izaten ez badugu ere). Aldaketaren norabidearen ikuspegitik bestalde, praktika sozial hauek teknologiaren beraren ezaugarriak bezain importanteak, edo importanteagoak, dira: *nola, norekin, zertarako*, hauxe da gakoa.

Alfabetoaren seme-alabak garenok, adibidez, kultur idatziaren praktika sozialetan garatu ditugu gure gaitasunak. Horregatik ezin dugu imajinatu eskolatik kanpoko (eta eskola sortu baino lehenagoko) gizakiaren izaera nolakoa den: ez dakigu zeintzuk diren bere gaitasunak, esperientziak, jakintzak... ez dugu ahozko tradizioak garatu dituen gaitasunen kontzientziarik izaten. Ezta alfabetatzearekin batera galdu dugunaz ere. Alfabetizazioa, -oraingo alfabetizazio berriak direla eta, etengabe esaten zaigun bezala-, ahalmen eta aukera guztien iturritzat jo izan dugulako beti.

Hortik kazetariaren harridura eta ondokoa ulertzeko zailtasuna: Jose de la Tomasak koplak eta bestelako poemak sortzeko gaitasunik baldin badu, jasotako ahozko tradizioari zor dio, eskolagabea izateari hain zuzen!, ikasgela ez baita inoiz izan hitzaren musikaren jaiotxea eta Josek, berriz, ordu asko pasatuko zituen, etxeen eta kalean, ahozko hitzaz jolasten eta beste pertsonei hori egiten ikusten, entzuten, ikasten. Eskolatuak diren poetek ere tradizio horretatik edan dute maiz. Beren arrakasta neurri handi batean, tradizio biak, ahozkoa eta idatzizkoa, uztartzen jakitetik etorri zaie.

Dena den, alfabetatzeak ez du zertain esan behar ahozkotasunari oso leku gutxi uztea, baina guk horixe egin dugu, ikasgelan hitz idatzia lantzearen berehala utzi ditugu eta, albo batean hitzaren ahozko erabilerak. Alfabetizazioa bera ez da orduan gure ahozko trebetasunen murrizketaren arrazoia<sup>21</sup>, baizik eta antolatu ditugun alfabetatze-praktikak, komunikazioari eta hitz egiteari leku txikiegia utzi dieten praktikak hain zuzen. Aspaldi hori aldatu nahian gabiltza, esperientziak eta ikerketek horrela agindurik (Wells, 1988): orain badakigu ikasteko, entzun, irakurri eta idatzi soilik ez, ikasteko, -baita irakurtzen eta idazten ikasteko ere-, *bitz egitea* oso garrantzitsua dela, -baita Informazioaren eta Komunikazioaren lengoiak ikasteko ere (Gutierrez Marin, 2003).

Eta ataka honetan, alfabetizazio berriak ezinbestekoak direnean, horixe da aztertu eta erabaki beharrekoa: garrantzitsua zer den, zer landu nahi dugun, zer egin IKTBek dakarten kultur aldaketak nahi dugun pertsona ereduari eta gizarte ereduari lagun diezaien... hezkuntzaren beste alorretan egiten dugun bezala eta, berizitasunak berezitasun, alor horiekin batera. Ez baitago mirakulurik sortzen duen alfabetizaziorik: ez dago ahalmen eta aukera guztien iturria den alfabetizaziorik. Goian esan bezala, giltzarria lengoaien eta teknologien erabilera da (nola, norekin, zertarako). Kultur idatziaren eta ahozkoaren arteko harremanaren adibidean ikusi dugun bezala, tresna bera erabiliz praktika sozial eta alfabetatze-praktika oso

<sup>21</sup> “Ahozko trebetasunen murrizketa” esatean ondoko honetaz ari gara: ahoz ipuinak kontatzeko eta publikoki ideiak aurkeztu eta argudiatzeko irakasleon zein ikasleen artean antzeman ditugun zailtasunak.

ezberdinak antolatu daitezkeelako eta hortxe jokatzen dira garatuko ditugun gaitasunak eta trebetasunak. Hortxe jokatzen da, azken finean, gure izaera.

### **3.3. *Alfabetizazio berrien norabidea: ikerketaren ondorio batzuk***

Ikerketaren zenbait emaitzek laguntzen dute, gure iritziz, garrantzitsua zer den bereizten, beti ere alfabetizazioaren bitartez gazteak pertsona kritiko eta autonomo bilakatzearean bidetik aztertuta. “Ondorioak” aipatzen ditugunean, beraz, ondoko hau esan nahi dugu: dakigunetik abiatuta, ikerketaren datuek pentsarazi digutena alfabetatzeari begira. Datuok alfabetizazioaren norabidea argitzen lagunduko digute: bigarren zubia.

#### **3.3.1. *Alfabetizazioa belburu irakasgai guztietan***

Lehengo kapituluan ikusi dugunez, ekipamendu teknologikoan egin den hobekuntza kuantitatiboa da, baina horrek ez du ekarri hobekuntza kualitatiborik ikus-entzunezko alfabetizazioan. Beste aldetik, Euskal Herriko ikastetxeek ez dute hezi komunikazioa garatu. Egoera honetan garrantzi berezia hartzen du alfabetatzepranktikak irakasgai guztietan sartzeak. Hezkuntzan aspaldi, konturatu gara hizkuntza irakasgai guztietan landu beharrekoa dela. Gaiak ikastea bezain importantea baita gai bakoitziari dagokion hizkuntzaren erabilera ikastea (landua eta espezifikoak). Ikaslearen alfabetizazioaren beste urrats bat da hau (Mercer, 1997). Beste “hizkuntzakin” gauza bera gertatzen da: gai bakoitzik erabilera ezberdinak eskatuko ditu eta edukiak lantzeko momentuak une aproposak dira erabilera horiek ikasteko.

Hau egiteko, irakasleok ezagutzen dugun beste zerbait dugu: lengoaiaaren alde instrumentalak azpimarratzen duten ikuspegiak (Austin, 1971), hezkuntzan hizkuntza lantzeko proposatzen direnak hain zuzen (Schneuwly, 1997). Ikuspegi honen arabera lengoaia tresna da, “gauzak” egiteko balio duen tresna. Lengoaia ikastea hortaz, testuinguru ezberdinetan tresna hori erabiltzen ikastea da. Erabilerok ikasteko, bestalde, ondoko hau dugu ezinbesteko: testuinguru horretan komunikatzeko gogoa, erabileraren ereduak eta solaskideak.

Irakasleon lana bada, hauxe izango da: a) erabileraren eredu eskeintzea eta honetan zailtasunik baldin badugu aditurek lagunduko digute, (ikus bosgarren atala); eta b) giroa, baldintzak eta baliabideak sortzea, ikasleek ikasten ari diren gaiari buruz zerbait kontatzeko izan dezaten, kontatzeko gogoa eta solaskideak. Hemen guk geuk ezagutzen dugunaz gain, *ez dakigunera* heltzeko gure lankideekin esperientziak elkar trukatzea dugu ideien eta proposamenen iturri nagusia.

### 3.3.2. *Garrantzitsuena: harremanak eta komunikazioa*

Komunikatzeko gogoaz hitz egitean ezin ahaztu ikerketaren beste datu bat. Euskal gazteek duten ekipamendu teknologikoa oso altua dela eta beraien kontsumo mediaticoa aldatzen ari dela: gero eta gehiago banan-banakako jarduera bilakatzen ari da. Baino, hala ere, nahiago dute lagunekin solasean egon TB ikusten egotea baino.

Bi egoera hauek ikasgelan erlazioak eta komunikazioa eragiten duten metodologiak erabiltzera bideratzen gaituzte. Ikasleak oso motibatuak daude haien artean erlazionatzeko. Hori aprobetxatuz, konpentsatu ahal izango dugu gaur egungo bizimoduan harreman sozialak izateko espazioen gabezia, zati batean behintzat. Importantea da alfabetatzeko diseinatuko ditugun estrategietan aurpegiz aurpegiko komunikazioaren, harremanaren eta lankidetzen esperientzia aberatsa eta interesgarria ahalbideratzea. Honela bakarrik ziurtatuko dugu, IKTBen erabilerak harremanak eta komunikazioa benetan zabaltzeko eta hobetzeko baliagarriak izan daitezen, gure ikasleek arlo honetan esperientzia positiboak izanez gero berauek modu ezberdinez errepikatzera joko baitute.

Gainera, lankidetzen eta tenika aktiboetan oinarritutako ikasketek, azken urteotan egindako ikerkuntzen arabera, ikasketa indibidualean oinarritutako ikuspegiak baino emaitza hobeagoak lortu dituzte (Colomina eta Onrubia, 2002; eta Johnson eta Johnson, 1999).

Laburbilduz, Informazioarekin eta Komunikazioarekin zerikusirik duten jarduerak pentsatzerakoan, kontuan hartuko dugun irizpide garrantzitsu bat hauxe izango da: ikasleak ikaskidekin edota beste pertsona batzuekin komunikatzera eraman behar dituztela.

### 3.3.3. *Ekipamenduaren hobekuntza kuantitatiboa lagun*

Baina ekipamenduaren hobekuntza kuantitatiboak badu ere alde positiboa: kasu askotan aukera izango dugu lehen pentsaezinak ziren jarduerak proposatzeko. Ikastetxearen horniduraz gain, ikasleen baliabideak ere aintzat hartzen baditugu beste ekintza batzuk posible izango dira. Ikasleen ekipamendu maila ezberdina izan arren, taldeka lan eginez gero, guztien artean ikus-entzunekoekin lan egiteko aukera zabala izango dute.

### 3.3.4. *Lehenengo ikasgaia: irudia ez da errealtitatea*

Ikerketan agertzen zaigu neska-mutilentzat telebista komunikabide nagusia dela eta halaber euskal nerabeak mediaticoan analfabetoak direla: irudia eta errealtitatea sarritan identifikatzen dituztelako, zenbait mezu deskodetzeko zaitasun nabarmenak dituztelako eta, askotan, mezu informatiboen polisemiaz ahazten direlako.

Beraz, irudia erabiltzen duten baliabideak gehien kontsumitzen dutenak eta gustukoena dira, bai asialdirako zein informazio iturri gisa. Horregatik, oso garrantzitsua da analisirako bitartekoak eskaintza. Horrela manipulazio eta eragin inkontzientea ahal den neurrian ekidin ahal izango dugu. Nola? irakasgai guztietan ondoko gaitasun hauek landuz: irudien balio erretorikoaz ohartzeko gaitasuna eta mutnaiak argudiatzeko daukan indarraz jabetzekoa (ikus kapitulu honen 6. atala). Irakasgai bakoitzean eduki eta berariazko trebetasunetatik abiatuko gara gaitasun hauek lantzeko. Honi jarraituz, interesgarria da “objetibotzat” hartzen dituzten irudien atzean besteen begirada aurkitzen lagundi ez ezik, euren begirada aurkitzen laguntzea eta bide batez, alfabetizatu nahi ditugun lengoaien oinarriak irakastea.

### ***3.3.5. Asko lagunduko digun galdera : zergatik irakurtzen dute horren gutxi?***

Irakurketarekin duten erlazio honek, testuinguru eskolarretan sustatzen diren alfabetatze-praktikak ekarri dizkigu gogora eta baita berauek idatzizko lengoaiarekin sortzen duten erlazioa ere. Gure ustez, alfabetizazioaren esperientziatik ikastea ezinbestekoa da beste alfabetizazio batzuei heltzeko: lorpenetatik ikasten dugu... eta akatsei esker ere bai, hori da bidea. Zaindu beharra dugu ikasleek lengoaietan izango duten harremana, haien ahalmenak garatzeko tresna bilaka daitezen nahi badugu.

### ***3.3.6. Ekin! Komunikazioa aktiboa da***

Neska-mutilek eztabaidea taldeetan azaldu dutenez, jasotzaile eta kontsumitzale gisa erabiltzen dituzte IKT Bak, ez horrenbeste eragileak bezala.

Teknologia hauek lengoiaia ezberdinaren integrazioa ahalbideratzen dute, baina ingurune honetan kontsumitzalea izateaz gain sortzaileak izateko, irudiaren lengoiaia lantzeaz gain, gorago propostu dugun legez, hitzek eta soinuak ematen dizkiguten aukerekin ere lan egingo dugu. Baino idatzizko lengoaiaren alfabetatzeko kasu askotan egin ditugun ariketa erritualetatik<sup>22</sup> haratago. Ariketa hauek eragin alfabetatzailea izan dute, ezbairik gabe, baina idatzizko lengoaiaren posibilitatetik aldendu dituzte ikasleak, ikerketan irakurketari buruzko emaitzetan egiaztatzen den bezala. Hau da, norberaren ahotsa aurkitu, garatu eta adierazteko posibilitateak ireki, hauxe izango da biderik egokiena ikasleak modu esanguratsuan lengoaiak integratzen ikasteko buru belarri eta gogotsu sar daitezen.

Izan ere, gazteak beren sortze-prozesuarekin kontaktuan jartzen dituzten ekimenak diseinatzea oso motibagarria eta eragingarria izaten da lengoaien erabilera ezberdinak ikasteko. Ikus-entzunezko alfabetatze-prozesuari ikuspegi artistiko

<sup>22</sup> Ariketa bat erritual bilakatzen da ikaslearen interesen ikuspegitik ariketak zentzurik ez duenean eta ondorioz ikasleak ikusten dion zentzu bakarra irakaslearen agindua betetzea baino ez da (Edwards eta Mercer, 1988).

batetik begiratzen badiogu, sormen eta adierazpen jolas moduan alegia, ikasteko gogoa piztearekin batera beste aukera bat zabalduko zaigu: idatzizko lengoaiaren alfabetatze-prozesuan sortutako gabeziak edota akatsak zuzendu ahal izango ditugu hitza beste eszenatoki batean landuz. Oinarrizko modu batean bada ere, soinua, irudi finkoak, mugimendua duten irudiak eta hitza, erabiltzea eskatzen duten jarduerak asmatzeak jolasteko gogoa esnatzea du helburu zeren eta “(...) trebetasunik gabe ez dago arterik. Gure adierazpen posibilitateak irekitzen dituzten betebehar askotarikoa praktikatik, jolasetik, arketatik, esplorazioitik, esperimentutik eratorzen” baita (Nachmanovitch, 2004: 60). Hasiera batean, lengoaiak integratuz egingo dituzten gidoiak oso oinarrizkoak izango dira, baina horrekin adierazpen-aukerak areagotzea ahalbideratzen duten baliabideak menperatzeko interesa sortarazten badugu, litekeena da etorkizunean ere ikasten jarraitzea.

### ***3.3.7. Informazioa, komunikazioa eta teknologia mintzagai***

Neska-mutilen artean Internet ohiko tresna bilakatu arren, erabiltzen duten teknologiari berari buruz ezer gutxi dakitela agertu da argi eta garbi ikerketan. Horregatik lehentasuntzat hartuko dugu denbora ematea, ez bakarrik teknologiaz *gauzak egiteko*, baizik eta *teknologiari buruz bitz egiteko*, Informazioaren eta Komunikazioaren munduaren funtzionamendua ezagutzea alfabetizazioaren alde importantea baita. Irakasgai guztiak dira egokiak gure bizitzan eta bizimoduan komunikabideak izaten ari diren eraginaz mintzateko eta teknologiaren zenbait aspektu, irakasgaiaren ikuspegitik aztertzeko.

## ***3.4. Ekintza, elkarrekintza eta narrazioa: eszenatoki sortzaileak alfabetizazioen testuinguru***

Orain arte esandakoaren ildotik, hezkuntzaz eta pertsonen izaeraz dakizkigun beste bi kontu ekarri nahi ditugu hona, alfabetizazioaren testuingurua erabakitzentzat lagunduko digutelakoan. Lengoaiarekin zerikusirik duen beste esperientzia berritzale bat gauzatzeko oso baliagarriak izan zaizkigu eta ikus-entzunezko alfabetizazioaren ikuspegitik aintzat hartzekoak dira gure aburuz (Zarandona, 1998). Hona hemen:

Lehenengoa: gizakiaren inguruko ikuspegi individualista erabat lekuz kanpo dagoela: besteen presentzia, besteekiko elkarritzetako, ezinbestekoak dira mundua ezagutzeko eta baita geure burua ezagutzeko ere (Bruner, 1997). Pertsonaren parte-hartze aktiboa, (ekintza), ahaztu gabe, ekinez ikasten baitugu, baina ondokoa aintzat hartuz: mintzairaz ez da ideiak formulatu eta komunikatzeko bidea besterik gabe; jendeak elkarrekin pentsatzeko eta ikasteko bidea ere bada (Mercer 1997; Coll eta Edwards 1996). Hortik ekintzaren eta elkarrekintzaren importantzia alfabetatzeko antolatuko dugun eszenatokian (testuingurua).

Bigarrena: Brunerrek (1988), Eganek (1991, 1994, 2000) -ikuspegi soziokulturalarekin bat datozen autoreak-, eta Larrosak (1995) hezkuntzan, gure izaera narratiboaz baliatzea proposatzen digutela. Gizakiaren berezko pentsamendua ez baita arlo zientifikoak garatu duena. Hori beste asmakizun kultural bat dugu, ikasi beharrekoa. Geure-geurea dugun pentsamendua, narratiboa da. Honetan berdintsuak gara alfabetatuak eta alfabetatu gabeak. Gizon-emakumeok, mintzodunak garenetik ez diogu istorioak kontatzeari utzi.

Kontalariak gara goitik behera. Ipuinzaletasuna da, giza jendea hobekien definitzen duena: bai besteekin, bai geure buruarekin ere kontu kontari ibiltzen garela etengabe; guk geure esperientzia ulertzeko ezinbestekoa dugu, barruan gordetzen dugunari egitura narratiboa ematea.

Gure pentsamendua beraz, narratiboa da. Narratiboa... eta dialogikoa gure narrazioaren jasotzaile bat bilatu beharra azaltzen zaigu. Solaskidea behar dugu, gure barruko istorio hori, beste bati kontatzen diogunean bakarrik bilakatzen baita benetako narrazio. Orain, edozein solaskidek ez du balio. Interes handiz entzuteko prest dagoenak soilik: horrek bakarrik lagunduko digu gure istorioa ateratzen.

Istorioek -asmatuak zein entzun edo irakurritakoak-, ezagutzen dugunaren ikuspuntu berriak eskaintzen dizkigute, ustez genekienaren ezagutza zabalduz; narrazioek giza-zentzua dute, horregatik ditugu gustuko, pertsonen asmo eta nahiekin badute-eta zerikusia. Eta hau, asmoak eta nahiak, pertsona garen neurrian, interesatu ez ezik, ulertu egiten ditugu. Jakintza zientifikoa hobeto ulertuko da, beraz, nolabait istorio baten gidoian sartzen badugu: giza-zentzuarekin lotzen badugu. Hauxe litzateke gure lana, narrazioaz baliatu nahi izanez gero.

Hau guztiau, esan bezala, bereziki interesgarria iruditu zaigu ikus-entzunezkoetan alfabetatzeko. Narrazioak (norberaren ahotsa) kontatzeko adierazpen-motak zabaltzen dizkigun aukeratzat hartuta, alfabetizazio berrieik irakasgaien edukiak ikasteko beste bide bat irekitzen digute.

Aurreko guztiaren ondorioz testuingurua erabakitzeko, *-zertarako, nola eta norekin*,- guk zera proposatzen dugu: ekintzatik eta elkarrekintzatik abiatuta narrazioak eta narraziogintza berrreskuratzea eta ikasleek zein irakasleek hitza, soinu eta irudia landuz eta jolastuz ikastea, testuinguru eskolarra eszenatoki sortzaile bilakatuz.

Proposamena Bilboko Irakasle Eskolan azkenengo urteotan hitzaren erabilera narratzaileak lantzeko dagoen esperientzia berritzaile batean oinarritzen da<sup>23</sup>.

<sup>23</sup> Esperientzia hau "Hezkuntzaren Psikologia" eta "Heziketa Bereziaren Oinarri Psikologikoak" irakasgaietan Laura del Castillo eta Esther Zarandonak lantzen dute.

Irakasleon eginkizunetako bat alfabetizazio berriak gure proiektuetan nola txertatu pentsatzea dela esan dugu kapituluaren hasieran. Horixe da guk egin duguna eta hurrengo lerroetan laburbilduta datorrena.

Proiektuaren oinarritzeko, hezkuntzari buruzko ikerketek eta esperientziek irakatsi digutena dago (Vigotsky, 1979; Wertsch, Del Río eta Alvarez, 1997; Miras, 2002; Cubero, 2005) eta kontalariekin ikasitakoa ere (Fo, 1988; Martin Gaite, 1988): hezkuntzaren berezko izaera komunikatiboa; ikasleen protagonismoaren garrantzia; irakaslearen rol laguntzailea; testuinguruaren eta interakzioaren importantzia eta jolasaren narrazioaren eta adierazpen artistikoaren balorea ikasteko eta norbere burua ezagutzeko. Eta ardatzak ondoko hauek dira: a) jardueraren eszenatoki soziokulturala eszenatoki sortzaile bilakatzea; b) Ikasteko eta irakasteko lengoaiaren erabilera narratzaileak berreskuratzea (Zarandona, 2004)); c) taldearen prozesuak dinamizatzea teknika eraginkor eta psikodramatikoak erabiliz (Zarandona, 2005); eta d) Ikaskuntza koperatiboa.

Narrazioak kontatzeko momentua asko zaintzen dugu, egun hori benetako estreinaldi eguna bilakatuz. Proposamenaren alderik importanteena, beraz, giroa da, ilusioa, jolasteko eta parte hartzeko gogoa piztea. Irakaslearen papera prozesu osoan zehar giroa sortu eta zaintzeaz gain, hau da: narrazioak egiten ikasteko oinarrizko prestakuntza eman, gaiari buruzko informazioa luzatu (kontzeptuak, iturriak), zalantzak argitu, baliabideak lortu, motibatzea, eta konfidantza giro bat sortu laguntha eskatzen hurbil daitezzen. Taldearen esperientziaren historia kontatuko dute ere, taldearen funtzionamendua hobetzeari begira, taldeetan eragiten duten prozesuaz kontzentzia har dezaten. Eta hau guzti hau bezain importantea da egiten dutenari buruz eta gertatzen den guztiari buruz taldeka zein talde haundian solas egitea giro eta esperientzia honetan ikus-entzunezko alfabetatze-praktikak sartzeko, Gutierrez Marinen (2003), Snyderren (2004), Garcia Matillaren (2004) eta Torregrosaren (2006) ekarpenak izan ditugu buruan, batez ere, azpimarratzen duten ondoko aspektu hauek: ikaslearen protagonismoa, alfabetizazioaren alde kritikoa eta alfabetizazio berrien dimensioanitzuna. Hemendik abiatuta bururatu zaizkigun jarduerak hauexek dira:

- Ikus-entzunezko lengoaiaz baliatuz materialak sortu, antzerki gidoi baten osagai gisa gauza ezberdinetarako: adibide bat, pertsonaia gisa, ahots bat, informazio bezala, eszenografiarako, azalpenei laguntzeko, taldeari proposatutako jarduera baten euskarri bezala...
- Lengoai batzuk integratuz gidoiak egin eta ikus-entzunezko dokumentu bat sortu ikasten ari diren gaiari buruz.

- Taldearen esperientzia kontatzeko ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea, hau da, hitzaz gain irudia eta soinua erabili taldeak bizi izan duena errepresentatzeko.
- Sormen lanari buruz bizi izan duten prozesua haien historioa kontatu ikus-entzunezko baliabideak erabiliz, edota estreinaldi egunari buruzko ikus-entzunezko adierazpen bat.
- Ikasleen esperientzia eta esperientzia metodologikoa jasotzen duen gidoia elkarrekin egin. Gidoia ikus-entzunezko baliabideak erabiliz burutuko da eta estreinaldia eta esperientzia metodologikoa jasoko du. Honen gaineko hipertestuak sortu.
- Programa, albiste, filme eta hipertestuei buruzko tertulia dialogikoak.
- Informazioa bilatu, bai sarean zein landutako gaiarekin erlazionatuta dauden instituzio ezberdinekin harremanetan jarritz.

Ekinez eta ekintzak sortarazten duenaz besteekin berba eginez ikastea da helburu.

### ***3.5 Beste proposamen bat: eszenatoki sortzaileak, baita irakasleentzat ere***

Gure nahia, ditugun baliabideak eta aukerak kontuan hartuz, esandako praktikak apurka-apurka sartzen joatea da. Horretarako ondokoa argi izan behar dugu:

Praktika bakoitzera egokiak diren generoak aukeratu eta aztertu behar ditugu eta ikasleekin mintegiak egin, aukeratutako generoari buruzko oinarriak lantzeko. Mintegiak IKTBak nola erabili eta IKTBen gaineko informazio garrantzitsua emateko aprobetxatuko ditugu (ikus 3.3.7. azpiatala).

Baina garrantzitsuena, geure alfabetizazio bera da, irakaslegoarena. Izan ere, guk ere mintegiak behar ditugu, gogoa eta ilusioa sortzen dituen giroa, ekintzak eta elkarrekintzak, gure narrazioak kontatzeko tresnak eskuratu, sormena eta elkarritzetak..., eszenatoki sortzailea alegia, eta taldeka lan egiteko posibilitatea. Hemendik abiatuta gure proposamena da jakintza-alor arteko taldeak sortzea. Bertan hezkuntzakoak, Informazioaren eta Komunikazioaren lengoaietan adituak, teknikariak eta artearen (arte digitala barne) mundukoak elkartuko ginateke. Talde hauetan irakasleok espezialistekin batera kapituluan zehar agertu diren aztergaiak landuko genituzke: a) zeintzuk diren ikus-entzunezko alfabetizazioarekin lortu nahi ditugun gaitasunak eta hauek lortzeko zer nolako aldaketak eragin behar ditugun gure testuinguruan; b) gure espezialitatea kontuan hartuz ikus-entzunezko alfabetatze-praktikak nola txertatu berrikuntza pedagogikoko esperientziak eragiteko; c) generoen eta lengoaien eredurik aproposenak gure irakasgaietan lantzeko eta d) zein izan behar den irakasleon nahitaezko prestakuntza ikus-

entzunezko alfabetizazioan eta zertan eta zertarako den beharrezkoa aipatutako profesionalekin elkarlanean aritzea.

Alfabetizazio berriak benetan ezinbestekoak direla uste badugu, Informazioaren eta Komunikazioaren lengoaien alderdi ezberdinak menperatzen dituzten profesionalak hezkuntza sistemara hurbiltzea eta haien elkarlanean aritzea ahalbideratu behar dugu.

### **3.6. Material lagungarraia**

Azken zubi gisa, material lagungarri batzuen aipamena.

Euskaraz, HIK HASIk sortutako materiala dugu “Begiradaren Heziketa. Zinema aztertzen” (2005). Bertan, haien ekoitztutako pelikula aurkituko dugu: *Ilargiaren sekretua*. Ipuinaren protagonistak Pirritx, Porrotx eta haur talde bat dira. Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako bereziki egokia, beste mailetan erabili ahal bada ere. Pelikularekin batera, proposamen didaktikoa egiten dute Hik Hasikoek, ondoko guzti hau azalduz:

- Curriculumean nola txertatu: arlo proposamen didaktikoan lantzen den guztia (familia, bizitokiak, gidoia, aktoreak, irudia, ilargia, abestiak, efektuak, mezua, zinemagintza, kartela, irakaspena eta koadernoa) zeinekin duen harremana agertzen da.
- Proposamenaren berezitasunak: irudian zentratua; euskara batuaz; B eta D ikasterduetarako pentsatua baina A ereduan ere erabilgarria; *globalizatua*: arlo askorekin harremanetan; beste pelikula batekin lantzeko ere aproposa; eta atalka sailkatuta dagoenez irakasleak interesatzen zaien hura soilik lantzea posiblizatzen dute.
- Metodologia, hasieratik bukatu arte zehatz mehatz laburbilduta.
- Helburuak.
- Edukiak blokeka: filma egiteko prozesua, gidoia, irudia, soinua, efektuak, diseinua, meuak eta balioak, eta zinemaren bilakaera.

Eduki bakoitzean, kontzeptuak, prozedurak, jarrerak eta jarduerak aurkituko ditugu. Hau guzti hau liburuxka batean eta DVDan. Gutxi balitz, amaieran, zinemagintzari buruzko bibliografia eta hiztegia.

Beste material interesgarri bat Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluak ateratakoak dugu. Gazteekin lan egiteko egokiagoa. EITB-ekin egindako saioa da (euskaraz eta erdaraz), “Ikusi eta Ikasi, Mira y aprende”. Oso ondo dago ikus-entzunezko produktuak nola *eraikitzen* diren ikusteko. Saioan, ikasle talde bat ikusiko dugu laburmetraia egiten. Haiek bizi izan duten esperientziari buruz hitz egiten kontatzen

dute laburmetraia nola egin duten, eta importanteena: oinarrizko gauza batzuk ikasiz gero, *edonork* egin dezakeela ikusten dugu, baita oso ekintza interesgarria izan daitekeela ere.



“Eszenatoki sortzaile bilakatzeko” bidean, hortaz, guztiz aproposa, ikasleek batzuetan hasieran ez baitute haien burua kontalari gisa ikusten, gidoi bat prestatzeko ahalmenetik urrun sentitzen dira. Beste batzuetan, berriz, lanik eskatzen ez duen eginkizuna dela uste dute (grabatu besterik ez). Saio honek, ordea, gazte batzuk, (haien bezelakoak), zinea egiten erakustean haien ere egin dezaketela erakusten die, eta, halaber, ikus-entzunezko kontakizun bat egiteak atzean duen lana.



Gainera, saioari buruzko informazio idatziarekin dator materiala, eta bertan ikus-entzunezko narrazioak dituen aldi bakoitzerako ariketak agertzen dira. Ariketa hauek eta Hik Hasiren “Begiradaren atzean” agertzen direnak oso egokiak dira gorago aipatu ditugun mintegietarako (bai ikasleenak, bai irakasleenak). Ariketak baino jolasteko proposamenak dira.


Beste aldetik, Kontseiluak berak “Familia, televisión y otras pantallas” kampainaren barruan atera duen materiala dago. Etxean, telebista eta beste pantailekin dugun harremana aztertzeko xedea duten lan fitxa batzuk dira. Bertan jarduera batzuk proposatzen dizkigute. Jarduerok sei bloketan daude sailkatuta, gaiaren arabera, eta, bloke bakoitzerako, gutxienez, hiru jarduera agertzen dira. Blokeen gaiak ondoko hauek dira:

- Automatismoak. *“Eta hau egin beharrean beste hau egingo bagenu...?”*: konturatu gabe komunikabideen presentzia handia dela eta ditugun ohiturak.
- Geuk sortutako mugak. *“Pantailarik gabeko espazioak”*: pantailek mundua betetzen dutenez geuk ipini beharko ditugu mugak.
- Denboraren banaketa. *“Nire ordutegia aztertzen”*: zertan ematen dugun denbora behatzea interesgarria da.
- Autoezagutza. *“Ezagutzen zaitut - ezagutzen nauzu”*: elkar ezagutzeko bidea dugu bakoitzaren gustuko pantailak ezagutzea.
- Arauak. *“Jolasaren arauak”*: adostutako arauak, txikiak eta gazteak babesteko ezinbestekoak, eta ohitura osasungarrien iturria.
- Ikus-entzunezkoen edukiak eta komunikazioa. *“Nire iritziz...”*: komunikabideen edukiaz hitz egin beharraz.

Bloke guztiak egitura bera dute: azkerketa (gaiari dagokionez ohiturak behatu); erabakiak hartzea (azterketaren ondorioek ohiturak hobetzea laguntzen dute) eta praktikan jartzea (planteatu den hobekuntzan praktikan jartzeko bideak).

Eta planteatzen den jarduera bakoitzeko fitxa lagungarri batzuk ditugu. Material hau oso egokia da 3.3.7. atalean proposatu duguna egiteko: Informazioaren eta Komunikazioaren munduak gure bizimoduan duen eraginaz ikasgelan hitz egiteko.

Azkenik, Consell de l'Audiovisual de Catalunya-k sortutako materiala ekarri nahi izan dugu hona, katalanieraz egon arren erabilgarria dela iruditzen zaigulako. “Com veure la TV?” izenburuarekin gida bat argitaratu dute, lau liburu eta lau DVD, haurrentzat eta gazteentzat material didaktikoa osatuz: “Els relats de ficció”, “Els informatius”, “La publicitat” eta “Altres formats”. Guztietan gaiak eta Jarduerak aurkituko ditugu. Materialean agertzen diren jarduera batzuk Lehen Hezkuntzarako dira eta beste batzuk Bigarren Hezkuntzarako. Hala ere, irakasle bakoitzaren esku dago, dituen ikasleen arabera, jarduerak moldatu eta egokitzea nahi duen mailean lantzeko.



Gai bakoitzeko liburua eta DVDa ditugu. DVDeik ez dute eduki autonomorik: gaiak lantzeko behar diren irudiak dituzte (pelikula, iragarki eta telesailen puxkak). Proposatzen diren jardueren osagaiak dira beraz, ez dute zentzurik gainontzeko ekintzetatik aparte. Gidaren ezaugarriak oso interesarriak dira, gure ustez. Batetik, jarduera asko eskeintzen dizkigutelako eta bakoitzean hau guzti hau aurkituko dugulako: helburuak; ikus-entzunezko materiala; jarduera nola eraman aurrean urratsez urrats; ikus-entzunezko materiala ikusi ondoren zer egin; ekintzek zein jakintz arlorekin duten harremana; eta, azkenik, jarduera osagarriak. Eta bestetik, materiala eta jarduerak modu askotan erabili ahal izateko planteatuta daudelako. Horrela, bai jarduerok, bai materiala, eskola bakoitzak eta irakasle bakoitzak haien hezkuntza proiektuan sar ditzakete.

Esan bezala, eta gidaren egileek azpimarratzen dutenez, DVDeik ez dute diskurtso hezitzaire autonómik. Aukeratu dituzten irudiek gogoetak eta ikuspegi kritikoa esnatzea dute helburu. Era berean, ez dute uste irakasleok diskurtso hezitzaire autonómik erabili behar dugunik. Metodologia aktiboa eta partehartzailea egokiena dela uste dute: parte hartuz, hitz eginez eta eztabaidatuz ikasi. Bat dator, hortaz, orain arte kapituluau proposatu dugunarekin, alfabetatzeko ikaslearen partehartza bultzatzen duen testuingurua sortzearekin alegia.

Material honek, gure ikuspegitik, duen beste gauza interesarri bat hauxe da: metodologia *integratzaila* ere proposatzen duela, hau da, jarduerak emozioen eta gogoeten integrazioa ahalbidetzeko pentsatuta daude. Jakina denez, ikus-entzunezko komunikazioa emozioekin estuki lotua dago: ikus-entzunezko mezuek jasotzailea automatikoki hunkitzen dute, zirrara sortu diote, eta emozioak esnatzeak, normalean, gogoetarako ahalmena alde batera uzten du. Metodologien helburua bada, ikasleek euren emozioak gogoeta bilakatzen ikastea da.

## 4. Curriculuma: hedabideak ikasi

Hezkuntza Sistemak ez du ikasketa arauturik eskaintzen masa-hedabideetako eduki kulturalei buruz. Horrela da, gaur gaurkoz. Ez da inongo sekreturen azala urratzea, hori esatea.

Eskolaren esku dago hein handi batean gizakia prestatzea gizarte aldakorrerako. Lan sakona da hori, adar asko eta ugariak dauzka. Etengabe eraberritzen den gizartearen abiadari segitza ez da erraza, ez denez.

Hedabideen alor berezituaren aurrean, prestakuntza espezifikoa falta da oro har gure eskoletan. Ikasketa-programa egunerautuak falta dira heziketa-gunerik gehienetan.

Eskolari eskatzen zaio ikasketa klasikoetan trebatzea gaztea, bai eta gaur egungoetan. Eta egunak hogeita lau ordu besterik ez du... Ez da lan erraza *betikoa* denaz gain, *berria* delakoari tartea egitea ikasgeletan.

Hala ere, gure ustez, ezin da bazterrean utzi teknologia komunikatiboen eta beraien produktuen analisia. Eskolak bere esku hartu behar du, modu batean edo bestean, baita ardura hori ere. Eta ez eskolak bakarrik; baita gizartea eta familiak berak ere.

Euskal Herriko eskoletan, oraindik ez dugu jardunbide arautu eta argirik arlo horretan egin daitekeenaz. Ez dago beharren definiziorik, ez dago ariketa-programamaziorik, ez dago ebaluazio-eredurik. Saiakerak badaude han eta hemen. Koordinazio-gogo batzuk, irizpideak finkatzen joateko ahaleginak. Baino, egia esan, oraindik orain, ez zaio katuari kriskitina jarri.

Gero eta gehiago ari da saiatzen gure eskola gaztea gizarte modernorako prestatzen eta trebatzen. Eta, arestian esanda dagoenez, gazteak gaur bizi duen mundua gero eta lotuago dago komunikazio eta informazio teknologiei eta beraien edukiei.

Hedabideek eskainitako produktuen kontsumo orokortuaren baitako gizarte honetan, nola garatu dezakegu eduki horien irakurketa kritikoa eta beregaina? Zelan lagundu dezake eskolak kontsumo hori arrazionalizatzen?

Artikulu honetan, proposamen batzuk egiten dira. Proposamenak.

Eztabaidea pizteko, hezkuntza-sistemaren komunitatearen baitan.

## 4.1. Curriculumera burbiltzen

Arestian esanda dugunez, eskolak ez du oraindik garatu eta osatu teknologien eta beraien edukietarako prestakuntza arautu eta bereziturik. Eta garatu duen apurra, garatu duen heinean, tresna horien *erabilpen manuala* kontuan hartuta garatu du. Ez hainbeste komunikazio-eredu horien *erabilpen intelektuala* kontuan hartuta, edo mundu horrek gure esku uzten dituzten produktuen inguruko hausnarketa kritikoaren eta beregainaren esparru posiblea kontuan hartuta.

Eta are gutxiago eskola-umea *igorle* paperera eramatearen aukera bera.

Arlo horretan, beraz, gure ustez hiru urrats egin behar lirateke:

- a) Komunikazio-eredu berri horien *kontsumitzaile-erabiltzaileak* formatzea
- b) Komunikazio-eredu berri horien edukien *irakurle* beregain eta kritikoak formatzea
- c) Komunikazio-eredu berri horietan trebatutako *igorle* prestatuak formatzea

Helburu nagusiak izan behar du eskola-gaztearen eskuetan uztea ahalako erreminta eta lantresna bat ahalbidetuko diona batetik teknologia horiek erabiltzea, bestetik horien edukiak bere onerako eta mesederako irakurtzea eta, azkenik, teknologia horietaz baliaturik, berak bere eduki propioak ekoiztea eta sozializatzea.

Erabilpen tekniko eta manual hutsaz, eskolarik gehienek eginak dituzte beraien urratsak. Salbuespenak dira gaur egun tresna komunikatziale horien erabilpena arrotza zaien gazteak. Dela eskolan ikasi dutelako, dela lagunen etxean ikusi dutelako, dela etxeen bertan aritu direlako, ia den-denek dakite ordenagailua pizten, telebistako urrunerako agintearrekin jolasten, musika-aparailuetan gogoko abestiak bilatzen, sarean konektatzen etaabar. Gizartea eta eskolak ongi trebatu ditu gazteak teknologien erabilpen manualean.

Kontsumo kritikoaz eta beregainaz, aldiz, asko dago oraindik esateko. Gazteak eduki sinbolikoa kontsumitzen eta iresten du. Baino, zergatik? Agian, gogokoa duelako; behar bada, modan dagoelako edo bestelako edukirik edo denbora-pasa alternatiborik ez duelako eskura. Gainera, erraza da oso eduki horiekin topatzea kalean nahiz etxean.

Kontsumo-erraztasun horrek, agian, *kontsumo akritikoa* deitzen dioguna bultzatu du. Ustezko naturaltasun faltsu baten barruan ikusten du gazteak hor eskaintzen zaiona. Iruditzen zaigu borrokatu egin behar dela hori. Alegia, hedabideetan eta teknologietan dena *normala* deneko uste zabala.

Kontsumitzen duena ona ala txarra den jakin behar du, taxuzkoa ala eskasa... Hartara, *kontsumo kritikoa* sustatu behar da.

Ez dezagun ahaztu, bestalde, gaztearen alfabetatze erabatekoak eskatzen duela gaztea bera ere izan ahal izatea *igorle*, komunikazio-eredu berrien esparruaren

baitan. Gazteak berak garatu behar du halako konpetentzia bat zeinaren bidez gauza izango den berak sortzeko, eta ez bakarrik besterena kontsumitzeko.

Eskolatze klasikoaren prozesua ez da eteten umeak letra eta zenbakia irakurtzen ikasten duenean. Idazten ere erakutsi nahi izaten zaio, bai eta metaforaz liluratzan ere. Zifrak ikasitakoan, zenbakiekin operatzen eta matematikaren baitan erakutsi nahi zaio arrazonatzen...

Eta erakusten zaio, besterena kontsumitzeaz gain, bere berea sortzen: ipuin bat asmatzen, amets bat pintatzen edo flauta jotzen.

Ildo beretik, komunikazio-eredu berrien alfabetatzean, *irakurtzen* bezala, *idazten* ere erakutsi beharko zaio gazteari. Kontsumitzen legez, ekoizten.

## 4.2. *Urratsak diseinatzen*

Beharrezkoa da ikusaraztea eta azaltza ezen hedabideen eta teknologia berrien bidez gureganatzen ditugun edukien aurrean, oro har gizakiak, eta gazteak gure kasu honetan, oreka bat bilatu behar duela, emozioaren eta arrazoiaren artean.

Gizakiak kontuan hartu behar du, konturatu egin behar du, ikusi egin behar du zeintzuk diren kontsumitzen dituen eduki horiek azaleratzen dizkion emozioen azpian dauden muineko arrazoiak.

Gizakiak kontuan hartu behar du urrats beregain bat egin behar duela, eta irudiaren liluratik harago egin behar duela jauzi, hausnarketa kritikora egin behar duela salto. Bestela esanda, inor gizaki konpetentetzat hartua izateko arlo honetan, emozioa eta hausnarketa zein bere lekuak jartzen jakin behar du.

Era berean, modu egokian ikasi behar du gizaki konpetenteak mezua interpretatzten, bai eta alor komunikatiboan gaitasun minimo batekin bere gauzak adierazten ere. Kontsumitzen duenaren analisi kritikoa egiten jakin behar du. Hori batetik. Eta, bestetik, ikasi behar du mezuak sortzen eta igortzen; ahalik eta modurik eraginkorren eta arrakastatsuenean.

Konpetente izateak berekin dakar zenbait kontzeptutan, prozeduratan eta jarreratan jantzia eta aditua izatea.

Orrialde hauetatik, proposamen gisara, sei ataletan jarri nahi da arreta.

Honoko hauetan: lengoia, teknologia, ekoizpenaren prozesua, ideología eta balioen esparrua, interaktibotasuna eta estetika.

### 4.2.1. *Lengoaia*

Gazteak jakin behar du zeintzuk diren mezu komunikatiboak sortzeko erabiltzen diren kode desberdinak. Lengoaiak.

Jakin behar du kode horiek erabiltzen eta, kode horietaz baliatuta, mezu arruntak sortzen eta igortzen.

Jakin ere, gazteak jakin beharko luke hedabideen mezuetan diskurtso desberdinak daudela, mota desberdinak. Komunikazioaren munduan egitura narratzaile askotarikoekin egiten dugu bat. Bai eta genero desberdinekin. Mundu desberdinak, mundu berean.

Gaztearen konpetentziak landu behar dira aniztasun hori ezagutzeko, eta aniztasun horretan esku-hartzeko eta jarduteko.

#### ***4.2.2. Teknologia***

Gazteak ikasi behar luke komunikazioa ahalbidetzen duten teknologia horien funtzionamenduaren oinarrizko teoria. Horrela, modu egokian jakingo du zer dagoen jasotzen dituen mezu horien atzean.

Mekanikaz janzten den heinean, produktuen zentzuaz ere trebatzen da.

#### ***4.2.3. Ekoizpen-prozesuak***

Gertakaria eta horren emaitza mediatikoaren artean dagoen ekoizpen-lerroaren ezagutza beharrezkoa du inork, komunikazio-eredu berrietako edukien interpretazio osoa egiteko.

Bere burua egokitutako behar luke gazteak hedabideen eta teknologien esparru horretara, bera aktore gisa jarduteko, igorle papera bereganatzu.

#### ***4.2.4. Ideologia eta balioak***

Gaitasun kritiko zuzena garatu behar du gazteak mundu errealauren eta horren errepresentazioren arteko loturak antzemateko. Ildo horretatik, gazteak argi eduki behar du ezer ez dela neutrala, eta mezu oro dela nolabaiteko ideología eta giza eta gizarte-balioen eramailea.

Gazteak jakin beharko luke mezu horietan aurkitzen gizartearen beraren interesak eta kontraesanak.

#### ***4.2. 5. Interaktibotasuna***

Gaitasun aktiboa garatu behar du gazteak, hartzale aktiboa izateko, parte hartzeko diskurtso publikoetan. Horretarako, egokia da teknologia parte-hartzaleetan trebatzea eta interaktibotasuna ahalbidetzen duten prozesuetan aritzea.

#### 4.2.6. *Estetika*

Balio estetikoak daude Hedabideek nahiz Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologi Berriek (IKTB) eskaintzen dituzten produktuetan.

Horiek aurkitzen eta erreproduzitzen ikasi behar luke gazteak, naturaltasun osoz ikasi ere.

### 4.3. *Telebistaren lanketa, adibide gisa*

Hedabiderik kontsumituena da telebista. Jakina da hori.

Erakargarritasun handia garatu du ikus-entzunezkoak gu denon aurrean, agian beste ezein hedabide-motak edo IKTBk baino handiagoa. Sarean egon daiteke telebistaren konpetentzia. Gazteak gero eta zaletasun handiago erakusten baitu horrekiko. Bainan, hor ere, ikus-entzunezko edukia da kontsumituena.

Adibide praktiko batzuk eskaini nahi dira orrialde hauetatik.

Helburu nagusia da kontsumo eta erabilpen kritikoa sustatzea eskola-gazteen artean. Horixe baita denaren orpoa, alegia beregaintasun intelektual osoarekin jardun ahal izatea hedabideen edozein produkturen aurrean.

Adibide honen garapenean, jar dezagun gure arreta bi arlotan: telebistako informatiboetan eta publizitatean.

#### 4.3.1. *Albistegiak*

Berez konturatu ez bada, gazteari lagundu behar zaio ulertzen ezen ezinezkoa dela munduan gertatzen den oro kontatzea albistegian. Gazteak jakin behar du ezen telebistak ezinezko duela munduan gertatzen den guztia guztia pantailara eramatea. Ezinbestean hautu bat egin behar du telebistak: gertakari batzuk azaldu eta erakutsi, eta beste batzuk ez.

Ildo horretatik, esan daiteke *gertakari guztiak ez direla albiste*. Faktu bat da hori, denok lekuo izan garen zerbait, ebidentzia bat. Bainan, ahaztua da sarritan. Albistegietan, dagoena dago, eta asko dago. Bainan ez dena. Hautua egiten du norbaitek.

Gazteari azaldu behar zaizkio zeintzuk diren erredakzioetan erabiltzen diren irizpide profesionalak gertakari batzuekin albisteak egiteko eta beste batzuk tintontzian gordetzeko. Hautua nola egiten den. Arrazoi profesionalak azaldu behar zaizkio, bai eta bestelakoak ere.

Erredakzioetan, maiz hitz egiten da ohiz kanpokoaz eta salbuespenekoaz, justifikatzeko gertakari bat albista bihurtzea eta, aldiz, beste bat ez. Termino

labainkorra eta manipulatzeko erraza da hori. Eskolak azal dezake termino horien atzean ezkutatzen dena: gizartearen eta munduaren irakurketa jakin eta interesatu bat, sarri askotan.

Ondorio argiak dituzte erredakzioetako erabaki horiek, bai gizartearentzako baita gizabanakoarentzako ere. Esaten ez dena, erakusten ez dena, ez dago begi publikoan, eta ez da existitzen iritzi publikoarentzat. Interesgarria litzateke hori bera experimentatzea eskolan, eskolako gertakariekin eta eskolako albisteekin.

Gizarte-esangura bat edo beste bat aitortzen diente hedabideek erakusten dituzten eragileei. Batzuei modu bateko garrantzia eta beste batzuei bestelakoa. Horretaz konturatzea garrantzitsua da. Protagonista bakoitzari zer testuinguru marrazten zaion ikuslea ere ezinbestekoa da. Erraz kontura gaitezke nola batzuk diren protagonista egoera ilunetan eta beste batzuk distiratsuetan. Horren azpiko arrazoiaik azaleratzea da erronka.

Hedabideek badakite emozioa lantzen, ezinbestekoa dute azal liluratzaile hori. Kontsumoaren ardatz kritikoaren bila, ez genuke hori ahaztu behar. Malko erraza bilatzen du batzuetan albistegiak, baina gero ez du azaltzen hondamendiaren edo sarraskiaren benetako arrazoia zein izan daitekeen.

Era berean, azaldu behar da irizpide profesional eta deontologikoez gain, badirela beste batzuk, agian ez hain etikoak, baina haien bezain indartsuak, gertakari batzuk albistegira eramateko eta beste batzuk ez. Kritika, benetako kritika hor has daiteke, seguru asko.

Era berean, albistegiaren aurrean, gazteak bere iritzia sortzen ikasi behar du. Erakutsi zaiona eta egin zaion gertakariaren irakurketa baloratzen ikasi behar du eskola-gazteak. Alegia: *telebistak hala esan duelako, ez du horrela izan behar, derrigor.*

Gazteak ikasi behar du albistegiak *usaintzen*, jakin behar du batzuk *ofizialak* direla, beste batzuk *alternatiboak*, eta beste batzuk *sentsazionalistak*. Gertakariak ez dira albistegi denetan berak, eta gertakari berak ez du trataera bera albistegi batean eta bestean.

Eta jakina, gazteak ikasi egin behar du bere jarrera eta irakurketa propioa eginda, iritzi hori jendaurrean azaltzen eta babesten. Alor horretan, ez da ahaztu behar gaztea hartzalea izateaz gain, igorle ere izaten trebatu behar duela. Alderdi horretatik, eskola-gazteak albisteak egiten ikasi beharko luke: batetik gertakarien artean hautua egiten, horien gainean eraikitzeko albistea. Eta, bestetik, albistea bera taxutzen ikasi behar du, albistearren egituraz ohitu behar du eta horretan saiatu; hobeto ulertzeko kazetariekin zer egiten duten eta nola baldintzatzen duten azken emaitza beren esku-hartze profesionalarekin.

Hiru ariketa proposatzen dira ondoren, eskolako edozein mailatan praktikatu daitezkeenak. Edozelan ere, umeenekin, nerabeenekin eta gazteekin kontzeptualtasun-maila desberdinak landu beharko dira, unean unekoak.

*a) Albistegiko albisteak bildu*

Ariketa moduan, lehendabizi, albisteak zerrendatu, ondoren banan bana komentatzeko. Garrantzitsua da jakitea zertaz hitz egin den albistegian. Horrela jakingo dugu munduaren zein errepresentazio egin den. Zer den munduaz kontatu dena. Jakingo dugu zer kontatu den atzerriaz, zer aberriaz, zen honetaz eta zer hartaz.

Era berean, albiste-zerrenda hori kontuan hartuta, arduratuko gara identifikatzen zelan definitu duten zer den *politika*, zer den *gizartea*, zer den *kultura*, *kirola*...

Azkenean, ikusi beharko genuke zer ez den kontatu. Dagoenaz beste argitzen baitu ez dagoenak. Esan dezagun zeintzuk diren guk ezagutu eta aipatu ez diren albisteak edo gaiak. Eta horrekin guztiarekin, has gaitezke albistegiaren interpretazio kritikoa lantzen, klasean bertan eztabaidea irekia proposatuz.

Oinarritzko informazioa biltzeko, eredu honetako fitxa erabili daiteke:

| Albiste zenbakia | Albista bera | Balarazioa | Sekzioa |
|------------------|--------------|------------|---------|
|                  |              |            |         |
|                  |              |            |         |
| .....            |              |            |         |

**ALBISTE ZENBAKIA:** albisteak albistegian hartzen duen tokia argigarria da, zeren azaltzen baitigu zein den erredakzioan albisteari berari aitortzen zaion garrantzia; zenbat eta lehenago agertu albista, ulertzen da orduan eta garrantzitsuagoa dela.

**ALBISTEA BERA:** deskribatu oro har zer kontatzen den, hitz-jarioari eta irudizkoari ereparatuz. Lerro batekin nahikoa da, oraingoz.

**BALORAZIOA:** kazetariaren ustez, baikorra ala ezkorra da kontatzen dena? Kazetariak zer interpretazio egin du kontatu duenaz?

**SEKZIOA:** alegia, gai orokorra; albisteari estaldura orokorra ematen dion makro-proposamena zein den markatu behar da: (politikoa, kulturala, kiroletakoa...).

*b) Albiste bat komentatzeko eredu-proposamena*

Albistegi batean, minutu erdi eta minutu bitarteko iraupena du albiste bakoitzak oro har. Albistegian, informazio-item ugari biltzen dira. Ugari azaltzen dira ideiak eta kontzeptuak. Kazetariaren hitz esanak, protagonisten hitz esanak, lekukoen hitz esanak... Azaldu, irudiak ere azaltzen dira... Batzuetan gertakari jakinarekin erlazionatutakoak, beste batzuetan antzekoak izan litezkeen gertakariekin lotutakoak.

Albista bera lantzeko, garrantzitsua da bi kode-sistema horiek nola uztartzen diren agerian uztea.

Ezinbestekoa da adieraztea nola laguntzen dion kode batek besteari.

| Ideia nagusiak identifikatu eta bildu hona | Irudi esanguratsuen deskribapena egin |
|--|---------------------------------------|
| .....                                      | .....                                 |
| .....                                      | .....                                 |
| .....                                      | .....                                 |
| .....                                      | .....                                 |
| .....                                      | .....                                 |

Txikia, laburra izanagatik, albisteak bertan azalduko diren ideiak bat baino gehiago izango dira seguruenik. Eta, gainera, ideien deskripzioa egitean, seguru asko, ez dira ikasle eta irakasle guztiak bat etorriko, baten begiak argi ikusten duena, agian, betterentzako iluna delako.

Baina, eztabaidak lagunduko du dena bere lekurantz eramatzen. Eta, ez ahaztu, erabateko adostasuna ezinezkoa izango dela batzuetan.

### c) *Ikaslea, igorle*

Eskolan dauden ahalmenen arabera, albistegi bat antolatzea izan daiteke hurrengo urratsa. Erabateko alfabetizazioak argi eta garbi eskatzen du *hartzaile* dena *igorle* ere izatea, nork bere eduki propioak diseinatzeko eta gauzatzeko gaitasuna lantzea eta eskuratzea.

Alderdi horretatik begiratuta, ikaslea igorle bihurtzeko, honoko hiru urrats hauek proposatzen dira:

- I. Albistegiaren edukien zerrenda egitea: alegia, landuko litzatekeen balizko albistegiak bere baitan hartu beharko lituzkeen albisteen bilduma zenbakitua, azalduaz zein sekziori erantzuten dioten.

| Albistearen zenbakia | Albistearen lerro-burua | Zein sekziotik datorren |
|----------------------|-------------------------|-------------------------|
| .....                | .....                   | .....                   |
| .....                | .....                   | .....                   |

- II. Albiste bakoitzaren ikus-entzunezko deskripzio idealetik egin, bertan azalduaz zein ideia kontatuko diren eta zein irudi erabiliko diren.

| Albistearen lerro-burua | Garatzeko ideiak | Grabatzeko irudiak |
|-------------------------|------------------|--------------------|
| .....                   | .....            | .....              |
| .....                   | .....            | .....              |

- III. Teknologiak eskura edukiz gero, albistea bera sortu eta albistegia muntatu.
- IV. Prozesua amaituta, autokritika egitea da onena. Ikusi zeintzuk ziren hasierako asmoak eta ondoren ekoitzi dena. Erkatu bata bestearekin. Eta hobetzeko zer beharko litzatekeen adierazi.

Lerro hauetatik, telebistarako albistegia nola iruzkindu daitekeen azaldu da. Bainan berdin antzera funtzionatu daiteke paperarekin edo irriatiarekin, eskola bakoitzak eskura duen baliabideen arabera.

Era berean, eskola-umeen adinari erreparatuz, edukiak eta zailtasun teknikoak, diskurtsiboak eta intelektualak mailaz maila egokitzen joan beharko litzateke.

#### **4.3.2. Publizitatea**

Begia nora, publizitatea han. Toki guztietan dago publizitatea: etxeen eta kanpoan, egunkaria erosten dugunean, aldizkaria eskuratzenten dugunean, telebista pizten dugunean, erosketak egitera ateratzen garenean, metroan goazenean... gurekin da publizitatea.

Publizitatearekin bizi den gizarte bat da gizarte modernoa. Sainhets-ezina da gure bizitzan. Sarritan kritikatu da publizitatea, bere zentzu ezkorra sarritan salatu dira. Bainan, ezin da publizitate barik bizi. Ezinezkoa da. Beraz, harekin elkarbizitzen ikasi beharko da.

Alor horretan, eskola-gaztearen trebakuntzak hasi beharko luke azalduaz zein den publizitatearen lehen jomuga, *target* deitzen zaiona. Alegia, eskola-gazteak ikasi behar du desberdintzen zeintzuk diren iragartzen diren produktuetako bakoitzak jomugatzat dituen gizarte-taldeak. Zeren, iragarki guztiak ez baitira oro har pentsatu eta sortu telebista-ikusle guztientzat.

Era berean, ikasleak asmatzen jakin beharko luke zein den iragarkiak itxaroten duen balizko ikuslearenengandiko erantzuna.

Eskola-gaztearen trebakuntzaren baitan, alor saihestezin bat da aztertzea publizitatea diskurtso hirukoitz moduan, zeren bere baitan biltzen baitira diskurtso informatiboak, arrazionalak eta seduzitzaleak.

Eskola gazteak argi ikusi behar du ezen markaren irudi sortzailearen baitan emozioak eta arrazoiak nahasten direla.

Eskola-gazteak bere burua garatu ahala, garatu beharko luke, era berean, beharrizanaren, benefizioaren eta atsegigarritasunaren arteko desberdintasunen lerroa. Iragarki baten aurrean, hartara, galdera hirukoitzta planteatu behar luke gazteak:

- produktu horren benetako beharrik ba ote dut?
- ze onura emango lidake produktuak?

- nola beteko ninduke horrek?

Heziketa horretan, aparteko lerroa beharko luke curriculum eskolarrean balioen ardatzak. Zer da atsegina, zer higuingarria? Zerekin lotzen edo uztartzen da produktua?

Aztertzeko eta eztabaidatzeko gai izan daitezke:

Publizitatea eta diskriminazio soziala.

Moda.

Gorputzaren gurtzea.

Hierarkien apologia.

Generoaren irakurketa...

Hona hemen, hiruzpalau urrats publizitatearen azterbideak lantzen joateko.

#### *a) Deskribatu iragarkia*

Arestian esandakoak kontuan hartuta, fitxa-eredu honetara bildu daitezke iragarkiaren mezuaren nondik eta norako nagusiak.

Honela, adibidez:

| Marka | Balizko hartzalea | Leloa | Irudien deskribapena |
|-------|-------------------|-------|----------------------|
|       |                   |       |                      |
| ..... |                   |       |                      |

**MARKA:** azaldu nork ordaindu duen iragarkia; produktua eta marka lotuta daude, batzuetan marka saltzen da, beste batzuetan marka baten produktu jakin bat, batzuetan biak, inoiz gauza bera dira marka eta produktua...

**BALIZKO HARTZAILEA:** nori zuzendua den iragarkia; gizartearen zein kolektibo da jomuga (gazteak, adinekoak, aberatsak, pobreak...)

**LELOA:** azaldu nola identifikatzen den marka edo produktua hitzen bidez; eslogana idatzi.

**IRUDIAK:** zer erakusten den azaldu, irudien zerrenda egin.

#### *b) Iruzkindu iragarkia*

Deskribapena egin ondoren, saiatu iragarkia kritikatzen.

Aipatzen dituen giza eta gizarte-baloreak azaldu. Erkatu horiek zureekin. Edo eskolan azaltzen direnkin. Edo etxearen hobesten direnkin.

Era berean, galduetua zein hutsune pertsonal nahiz sozial betetzen duen produktuak. Ea zertan laguntzen duen gizartea hobeagoa egiten.

Hitz egin prezioaz.

c) *Berridatzi iragarkia*

Deskribapena eta kritika egin ondoren, saiatu iragarki berri bat planteatzen. Marka edo produktu bera izan daiteke abiapuntua, edo marka eta produktu asmatua. Horretarako atzekoz aurrerako prozesua erabili: alegia, ikusi zertan lagundu dezakeen markak edo produktuak gizartean, zein beharko zukeen izan prezioa, zer nolako giza eta gizarte-baloreak hartu beharko liratekeen kontuan...

Eta azkenean, erredaktatu testua eta filmatu.

Aurreko atalean esan dugunez, azterbide eta ekoizpen-bide hauek telebistarako pentsatuak diren arren, eskola bakoitzak dauzkan baliabideen arabera, paperarekin nahiz irratia-rekin berdin antzera funtziona daiteke.

#### 4.4. Azken bitz bat

Kapitulu honek helburu argia du: ikus-entzunezkoen aurrean jarrera kritikoa eta beregaina sustatzea eskola-gazteen artean. Hiruzpalau irizpide deskribatu dira, ariketa-proposamen batzuk azaldu dira.

Halere, garrantzitsua da kontuan hartzea ezen ikasketa hauek eskola-curriculumean txertatu behar direla. Arautu.

Hori ahalbidetzeko, beharrezko da eztabaidea sustatzea klaustroan eta ikusi nola garatu daitekeen ildo horri begirako lerro bat, zuzena nahiz zeharkakoa.

Kreatibotasun kritiko eta beregaina lantzen lagundu dezake gaiak.

Azkenik gogora dezagun ezen hedabideen inguruko hausnarketak eta komunikazio-eredu berrien erabilpenak ongi asko balio dezakeela bestelako eskola-gaiak eta edukiak lantzeko: kultura-gaiak, edo etika arloak, edo inguruneak, edo hizkuntzak...

Aukera ugarien artean, gai zabal honek eman dezake abiapuntua erreportaje bat egiteko, inor elkarritzetatzeko, albiste bat idazteko edo gazteen artean mahai inguru bat planteatu eta bertan irizpide desberdinak eztabaideatzeko.

Kontua ez da bakarrik meta-kazetaritza egitea, alegia bestek egin dutena deskribatzea, eztabaideatzea... Planteatzen duguna da *bigarren* egosaldi bat egitea, hots: komunikazio-eredu eta teknologia berri horiek erabiltzea baita eduki propioak sortzeko.

Zeren, hasieran esan dugun bezala: alfabetatzea ez baita bakarrik *irakurtzea*, *idaztea* ere eskatzen baitu alfabetatzeak.



## 5. *Voces expertas: Educación y formación, elementos clave*

Antes de iniciar nuestro trabajo de campo, nuestras sesiones con grupos de debate en centros de estudio y nuestra encuesta entre adolescentes, decidimos realizar una serie de entrevistas en profundidad con personas expertas en la materia. En algunos casos están vinculadas a actividades de formación del profesorado, en otros han realizado directamente con adolescentes escolares experiencias de uso y educación en el uso de medios de comunicación. Algunas de estas personas han publicado, además, análisis, artículos y ensayos sobre ese tema y todas ellas tienen una profunda inquietud ante el mismo.

Traemos aquí parte de sus reflexiones, que fueron más amplias y sobre más cuestiones que las que exponemos. En todo caso, la responsabilidad de la elección y presentación de lo que va a continuación recae únicamente en nuestro equipo de investigación. Hemos recogido, en concreto, extractos de las opiniones de:

- Arrate Egaña y Paco Luna, miembros del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa y coautores del texto *Prentsa tailerra / Taller de prensa*.
- Carlos Lomas, profesor de educación secundaria y asesor en el Centro de Profesorado y de Recursos de Gijón, codirector de la revista Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura.
- Esther Torres, responsable de formación e innovación de la BIGE (Asociación de madres y padres de alumnado de la enseñanza pública de Bizkaia) y coordinadora del programa “Te3levisión y Medios” desarrollado en diversos centros escolares.
- Fernando Marín, Responsable de las TIC del Centro de Renovación Pedagógica del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.
- Germaine Hacala, técnico superior (retirada ya) del Ministerio de Educación de Francia, con amplia experiencia en el sistema educativo de Iparralde.
- Joan Ferres, profesor en la Universidad Pompeu i Fabra y miembro directivo de la revista catalana *Mitjans* dedicada a la “alfabetización audiovisual”.
- Luis Matilla, formador de formadores audiovisuales y con una amplia cantidad de publicaciones.

- Mikel Usabiaga, profesor de Mondragón Unibertsitatea que trabaja en una tesis doctoral sobre los mismo temas analizados en esta investigación.
- Roberto Aparici, presidente del Consejo Mundial de Educación para los Medios y profesor de la UNED.
- Victor Moreno, profesor en el Instituto Moret-Iribide de Pamplona, autor de numerosos artículos sobre didáctica de la lengua.

Estas entrevistas tenían dos objetivos. El primero, dotarnos de un conocimiento mayor sobre el tema, tanto en lo que podría llamarse “visión de conjunto” del mismo, como en el conocimiento de experiencias concretas desarrolladas ya. El segundo ayudarnos a rediseñar los esquemas de trabajo y las preguntas que teníamos preparadas para organizar los grupos de debate en los centros escolares y para realizar la encuesta. En ambos sentidos los resultados fueron satisfactorios.

La entrevista se dividió en cuatro partes. De inicio, pusimos sobre la mesa la pregunta de cómo valoraban el nivel de *alfabetización audiovisual*, de competencias de nuestra sociedad (y de la adolescencia en particular) para codificar y descodificar los medios de comunicación. Se les pidió, en segundo lugar, valoraciones sobre la influencia de los medios en la adolescencia. Abordamos, después, su opinión sobre una gama de cuestiones concretas relacionadas con la *educomunicación*, y dentro de ellas, en particular sobre la respuesta que el sistema actual da y el que debería dar en esta materia. Y finalizamos preguntando específicamente sobre las perspectivas de futuro de la influencia e impacto de las nuevas tecnologías.

Publicamos, a continuación, parte de esas entrevistas. En algunos casos hemos optado por reproducir reflexiones, conceptos o definiciones de carácter más general; en otros nos ha parecido más oportuno subrayar experiencias prácticas directas de las personas entrevistadas y las reflexiones unidas a ellas.

## **5.1. La alfabetización audiovisual**

Desde el significado que tienen los conceptos *Media Literacy* o *Alfabetización Audiovisual* (explicados en el apartado primero), pedimos a nuestras voces expertas una evaluación sobre el estado de tal alfabetización en nuestro entorno.

**Luis Matilla:** *Somos analfabetos funcionales y nos han enseñado a leer textos escritos pero no a leer imágenes.*

Yo creo que somos analfabetos funcionales, y nos han enseñado a leer textos escritos pero no nos han enseñado a leer imágenes. ¿Qué ocurre con esto?, que el nivel de sensibilidad nuestro está fallando en la medida que hacemos una lectura

de la imagen absolutamente mimética de la realidad (...). A mi me gusta mucho trabajar en educación infantil. Cuando un niño le dice a una profesora: "una foto, es mamá", la profesora debería decirle "¿mamá?", cómo es mamá, como huele mamá, como huele la foto, como apretarías a la foto, como apretarías a mamá". Tenemos la foto de una vela, soplamos, y la vela no se apaga, cogemos una vela de verdad y la apagamos. Una pelota no bota, una pelota de verdad puede botar; es la foto de mamá, es la foto de una pelota. Si a un niño desde pequeño le empezamos a educar entre imagen y reproducción, entre imagen y realidad, le empezamos a decir que lo que se reproduce no es la realidad y que nosotros deberíamos buscar nuestro propio punto de vista de la realidad, estaríamos haciendo alfabetización audiovisual.

Pero eso no ocurre y el problema de ésta sociedad es que estamos llenos de imágenes pero no sabemos leerlas y mucho menos producirlas. Por cada imagen que producimos recibimos 500.000 en la publicidad exterior, en los medios de comunicación. Eso muestra que somos una sociedad pasiva, que consumimos imágenes pero que no las producimos. Ni siquiera sabemos hacerlo. Tampoco los adultos. Nosotros por ejemplo, llegamos y decimos: poneros todos juntos ahí que vamos a sacar una foto. Y la sacamos a toda prisa pero no pensamos que en tres minutos más intentando ver dónde hay una sombra preciosa de un árbol o donde una roca maravillosa, podríamos conseguir una comunicación estéticamente mejor. Si nosotros, adultos, no utilizamos este sistema de sensibilidad para mirar la realidad de una manera más permeable, ¿qué ocurre con los jóvenes?; pues ocurre que a través de una educación muchas veces bancaria, muchas veces reproductiva de esquemas dominantes, no se les están abriendo horizontes imaginarios. No hay alfabetización audiovisual.

Entonces yo creo que todo el conflicto es: no se sabe leer la imagen, no se enseña a hacerlo, no la leemos. O, cuando menos, el nivel de lectura es bajo; pero como en la escuela no se practica y como la preocupación de la sociedad no es hacer hijos sensibles sino reproductores de la realidad, pues no podemos elevar ese nivel.

**Carlos Lomas:** *La alfabetización audiovisual requiere un aprendizaje formal que no existe.*

En mi opinión nada invita a pensar que la mayoría de la gente tenga un alto grado de alfabetización mediática. Por una razón evidente: de la misma manera que el lenguaje oral se adquiere de una manera natural, en contacto con un entorno familiar y social, pero sin embargo el aprendizaje de las competencias lecto-escritoras requiere de un aprendizaje formal que habitualmente se encomienda a la institución escolar, pues algo semejante ocurre con el conjunto de conocimientos, de habilidades, de destrezas y actitudes que favorecen una lectura crítica de los mensajes de los medios de comunicación de masas, de la publicidad y del entorno de Internet.

Se trata de un tipo de habilidades y de conocimientos que no son innatos y que no suelen ser objeto de una enseñanza sistemática en los contextos escolares. Se dice que la *competencia comunicativa* de las personas se adquiere cuando se dominan un conjunto de conocimientos y destrezas que nos permiten hacer un uso coherente, adecuado correcto y eficaz del lenguaje en los diversos contextos y situaciones de la comunicación humana. Y por ello se afirma con razón que no basta con una competencia gramatical que como señala Chomsky es innata, sino que son necesarias además una competencia sociolingüística, una competencia textual y una competencia estratégica.

Este concepto de competencia comunicativa es muy deudor de la tradición lingüística y por tanto no suele incorporar en sentido estricto ese conjunto de habilidades, de conocimientos y de destrezas que permiten una interpretación crítica de los mensajes de los *media*. Cabe pensar entonces que la mayoría de las personas en nuestras sociedades, que están expuesta a múltiples estímulos audiovisuales y virtuales, no ha adquirido de forma suficiente los conocimientos y las destrezas lectoras e interpretativas que permiten imaginar una comprensión cabal de las formas y de los efectos de los mensajes de la cultura de masas.

En mi opinión, y en lo que se refiere a la alfabetización mediática, la omnipresencia del mundo audiovisual y virtual en las sociedades actuales no va acompañada de un proceso sistemático de enseñanza y de aprendizaje en torno a los mensajes y los lenguajes de esos entornos audiovisuales y mediáticos, por lo que cabe imaginar que el papel del espectador o de la espectadora ante esos impulsos y ante esos estímulos mediáticos es casi siempre un papel sumiso y devoto

**Roberto Aparici:** *Estar expuesto al medio no significa estar alfabetizado.*

Aunque en las sociedades desarrolladas y referidas a la lecto-escritura existan situaciones de “analfabetismo funcional”, es decir, gente que tiene escasa comprensión de los significados, en general podemos decir que son sociedades alfabetizadas. Pero la gente ha sido formada en un determinado tipo de códigos que son los lingüísticos, y cuando se enfrente a otra manera de codificar, como son los mensajes mediáticos, los mensajes audiovisuales, la tasa de analfabetismo es extremadamente alta, y estar expuesto al medio no significa estar alfabetizado. Un ciudadano español pasa cada día delante de los medios tres horas cuarenta y cinco minutos; en el caso de los niños y jóvenes, supera al año las horas que están en el instituto o en el colegio. Pero podemos decir que la población en su conjunto desconoce cuales son los mensajes implícitos que transmiten los medios. Puede entenderlo a nivel denotativo, puede entenderlo a nivel de estructura descriptiva pero tiene serias dificultades para entender qué se ha querido transmitir con eso. Pensemos que el mensaje audiovisual es un mensaje cifrado, y la mayor parte de la gente no está en condiciones de comprender ese tipo de códigos.

Con respecto al lenguaje audiovisual, el nivel de alfabetización es inexistente; pueden ser analfabetos desde un juez hasta un médico, eso no está asignado por clases sociales o niveles socioculturales, y una persona de formación universitaria puede ser un analfabeto. Y con respecto a la dimensión digital, la alfabetización es meramente mecánica o instrumental y se limita al uso de ratones y teclas, cuando debería significar el trabajo con la materia prima de la sociedad del conocimiento, que es la información.

## 5.2. La influencia de los medios en los adolescentes

En la entrevista les pedimos una valoración general sobre la influencia de los medios de comunicación entre adolescentes de 14 a 18 años, pero también introdujimos, para hablar de ello, algunos temas concretos como el consumo, el conflicto vasco, la convivencia entre lenguas distintas de una misma comunidad o la inmigración. Así mismo les planteamos su análisis sobre las causas por las que los efectos de los medios pueden ser diferentes en unas y otras personas de esas edades.

**Germaine Hacala:** *Euskarari estatutu bat eman nabi baldin bazaio, hedabideen papera funtsezkoa da. Ez da aski gurasoek nabi izatea haurrek ikastea.*

Nire ustez, hedabideek eragin handia dute. Telebistak bereziki, Internetek baino gehiago. Telebistatik zabaltzen diren irudiek eragin handiagoa dute. Gazteen irudimenean, eta elkarren arteko portaeretan telebistak du eragin handiena. Bideo jokoek ere behar bada bai. Nik ez dut adin horretako haurrik, baina lanean ari nintzelarik eta arduratzen nintzelarik eskolaz, erran nahi da hamabi urteko haurretaz, ohartzen nintzen jadanik bideo jokoek eragin handia zutela, eta telebistak ere bai. Orain, ez dakit sobera nola den baina nik uste beti segitzen duela gauza horrek. Hartzen baduzu hamabi urteko haur bat, hasteko denek emankizun berak begiratzen dituzte, denek bideo joko berak dituzte, eta nire ustez eragin horrek segitzen du oraino bertze hiru lau urtez.

Niri iruditzen zait masa-hedabideen produktua ez dela hainbat egina izpiritu kritiko baten garatzeko. Gehienbat merkatu bat sustatzeko da, eta hor sortzen dira baloreak, hezkuntzak badu hor lan handia egiteko, bai publizitateari dagokionez, bai telebistako emankizunei dagokienez, edo Interneti dagokionez. Nire ustez hor heziketa zehatza egin beharko da. Betidanik izan da hori, publizitatearen eragina, zeren eta horretan ari diren profesionalek ezagutzen dute beren ofizioa eta gauzak arraz ongi egiten dituzte gazteak harrapatzeko. Eta egia da lanjerra bat badela, gizarte estandarizatu bat heldu zaigula.

Baina testuinguru soziokulturalak, etxekoak, eragin handia du horretan nire ustez. Haur batekin hitz egiten baduzu ikusi duen emankizunaz, edo erakusten badiozu

hori hola emana dela hargatik, adierazpen zenbait egiten badizkiozu, elkarritzketa bat sortzen baduzu berekin horren inguruan, ez duzu uzten haurra bakarrik denaren irensten. Etxean heziketa bat eskatzen du. Zeren eta maila horietan oraino eragin handiena etxeko da momentuz. Eskolakoa bizi mugatua da, zehatztua, karratua, eta azken batean denbora gehiena etxean pasatzen dute gazteek hedabide horiek. Eta etxean ez baldin bada, debekatu gabe bistan dena zeren eta berek eskatzen dute, baina hor gurasoen lana eta eragina nire ustez handia da.

Nik pentsatzen dut etorkinei buruz ez dutela interes handirik adin horretako haurrek, gehien bat jende helduagoarentzat da eragin hori. Gainera ezberdina izango da haien inguruan etorkin asko baldin badituzte (Frantziako hiri batzuen kasua, Paris, Marseilla...), eta ikusiak ikusi 14-18 urteko gazteak aski irekiak dira ezberdintasunarekiko, eta hori nire ustez hemen bederen aski naturalki barneratua dute.

Baina kontsumoarenak, bai, eragiten die. Haiek hunkitzen ditu zuzenean, eta hor hasten dira diru pixka bat ukatzen, bakoitzak nahi du bere nortasuna eraiki, baina multzo baten barnean sentitu hala ere, eta multzoan behar da sartu, besteentzat antza izan, baina norbera izanez, eta hor nortasun borroka batzuk sortzen dira. Eta horretan du nire ustez kontsumo aferak gehiago eragin.

Euskal Herriko gatazkaren inguruan, hemen hegoaldean baino anitezzez urrunagotik ikusten da bistan dena, baina ez da erraten ahal ere ez dela. Urruñan izana naiz irakasle hamabost urtez euskaraz, eta dependitzen du zer testuingurutan diren haurrek. Baino pixka bat sentsibilizatuak baldin badira euskarari, euskal problemari, hunkitzen ahal da gazte multzo bat. Baino ez da erran behar orokorra denik. Hala ere, inguru honetan nik sentitzen dut atxikimendu hori Baionan baino gehiago. Urruña, Hendaia, Azkaine, Sara, eta barneko alde horretan ere pixka bat sentitzen dut sentsibilizazio hori problematika horri buruz, baina ez da gehiengoa ere. Eta hemengo hedabideek ez dute aipatzen.

Euskarari estatutu bat eman nahi baldin bazaio, aldiz, hedabideen papera funtsezkoa da. Ez da aski gurasoek nahi izatea haurrek ikastea, gero nonbait behar da espresio molde hori aurkitu, eta gazteek bilatzen dute. Hedabideetan baliatzeak eginen du euskararekin atxikimendu bat izanen duten edo ez. Eta adin horretan da finkatzen nortasuna. Hamalau hamabost urte arte gurasoek nahi dutena eta erraten dutena egiten dute haurrek gehienbat, gero hor beren hautuak hasten dira egiten, eta hautu horiek egiten dituzte beren lagunen arabera. Nire ustez euskara nahi bada zabaldu, finkatu, eta normalizatu, hortik behar da hasi.

**Joan Ferrés:** *No cabe duda de que controlan más y mejor nuestras emociones los profesionales de los medios de masas que los profesionales de la enseñanza.*

